



Universidad  
del País Vasco


Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO  
INGENIARITZA  
ESKOLA

DOKTOREGO TESIA

# GIZA OKLUSIO BIOMEKANIKAREN ANALIZATZAILE DIGITALEN ZEHAZTASUNAREN AZTERKETA ETA HOBEKUNTZA TEKNIKAK

Mikel Jauregi Odriozola



TESI ZUZENDARIA

Eneko Solaberrieta Méndez

Adierazpen grafikoa eta ingeniartzako proiektuak saila

DONOSTIA, 2023.EKO ABENDUA



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA

## DOKTOREGO TESIA

**GIZA OKLUSIO BIOMEKANIKAREN ANALIZATZAILE  
DIGITALEN ZEHAZTASUNAREN AZTERKETA ETA  
HOBEKUNTZA TEKNIKAK**

Egilea:

**Mikel Jauregi Odriozola**

Tesi Zuzendaria:

**Eneko Solaberrieta Mendez**

Adierazpen grafikoa eta ingeniartzako proiektuak saila

Donostia, 2023.eko abendua



*Duela urte asko, oraindik gazteegi ginela utzi behar izan gintuzun, eta orain inoiz baino gertuago sentitzen zaitut. Zuretzat aita, eta zure hutsune beteezina betetzen ahalegindu diren guztientzat*



## LABURPENA

---

Garai digitalean bizi gara eta digitalizazioak gure bizitzaren arlo guztietan eragin zuzena duela geroz eta nabarmenagoa da. Medikuntzan eta Odontologian ere garai digitala iritsi da, eta horrek betiko lan egiteko modu konbentzionalak guztiz aldatu ditu. Nahiz eta tresneri digital berriek aukera oso interesgarriak eskaini, horien erabilpenak ezagutza berriak eskatzen ditu eta betiko ezagutza modu berrietan ulertzeko beharra ekarri du. Giza oklusioaren biomekanikaren informazioa jaso eta neurtzeko, oklusio analizatzaile digitalak garatu dira. Horiek paper artikulatuak modu konbentzionaletan ematen dutena baino askoz informazio osatuagoa ematen dute oklusioari buruz.

Oklusio analizatzaile digitalek hortzen arteko kontaktu puntuen lokalizazioa edo kokapena emateaz gain, puntu horietan denboran zehar ematen diren kontaktu indarrak neurtu eta grabatu ditzakete. Hala ere, hasiera batean odontologoentzako hain informazio interesgarria eman dezaketen gailu horiek, ez dira hertz kliniketan uste bezain beste zabaldu.

Alde batetik, uste da kontaktu indarren informazioa ondo ulertu, interpretatu eta hertz tratamenduetan aprobetxatzeko oinarrizko ezagupenak falta direla. Oklusioa ekintza biomekaniko konplexua da, parte hartzen dutelako, besteak beste, buruaren

hezurrek, hortzeriaren geometriak, murtxikatze giharrek, baraila eta garezuraren arteko artikulazio tenporomandibularra (ATM) izeneko lotura mugikorak, ahoaren mugimendu posibleak. Beharrezkoa da horiek guztiek hortzen arteko kontaktu indarretan sortu dezaketen eragina ulertzea.

Bestalde, zehaztasun zalantzak sortu daitezke indar magnitude jakin bat neurtzeko eraikitako aparatu berri baten neurriek. Erreferentziazkoa den T-Scan analizatzaile digitala, merkaturatzen aurrenekoa izan zen eta duela urte gutxi merkeagoak diren eta antzerako funtzionalitatea duten beste analizatzaile batzuk merkaturatu dira. Ondorioz, merkatuan dauden analizatzaile digitalen artean aukeraketa egiterako garaian erabiltzaileak zalantzak izan ditzake.

Hau guztia kontutan izanik, artikuluen bildumaren bidez egin den doktorego tesi honetan zenbait galderei erantzuna eman nahi izan zaie eta argitaratutako hiru artikuluetan, ikerketa lerro honen barruan osagarriak diren hiru gai desberdin landu dira.

Lehenengo artikuluan, oklusioaren biomekanika hobeto ulertzeko, in-vitro saiakuntzak egiteko metodologia berri bat garatu da eta murtxikatze indarren kokapen-aldaketak kontaktu indarren magnitude eta zentroetan eragin zuzena dutela ondorioztatu da. Horrek agerian utzi du, odontologoek ezin dutela kontaktu indar orekatu bat betirako lortu hortzen geometriari aldaketak eginez soilik.

Bigarrenengo artikuluan, merkatuan dauden bi analizatzaile digitalak kontaktu indarren oreka neurtzeko duten doitasuna aztertu eta konparatu da in-vitro saiakuntzen bidez. Análisi eta konparaketa industrian ezaguna den GRR "Gage repeatability and reproducibility" metodologia aplikatuz burutu da, bi ondorio nagusi ateraz: T-Scan erreferentziazko gailuak, OccluSense gailuak baino burutu dagoen doitasun altuagoa duela, eta OccluSense analizatzailearen erreproduzigarritasun baxua modu esanguratsuan



hobetu daitekeela, sentsore pizioelektrikoa hortzerian ondo zentratuta kokatzeko pieza batekin erabilia.

Azkenik, behin sentsorearen kokapenaren garrantziaz ohartuta, hirugarren artikulan sentsorea beti modu erreproduzigarri batean hortzerian kokatzeko teknika bat garatu da. Teknika hori, gizaki bakoitzarentzat indibidualizatu beharreko kubeta baten erabileran oinarritzen da. Erabili beharreko kubeta berdina da T-Scan eta OccluSense analizatzaileentzat, eta kubetaren zein kubeta analizatzaile bakoitzean ezartzeko beharrezkoa den egokitzailea online jarri dira eskuragarri, nahi duenak erabil ditzan. Teknika horrekin, egun desberdinetako oklusio erregistroak elkarrekin doitasunez konparatu daitezke.

Aurrera eramandako 3 ikerketa lan konkretu horiekin, analizatzaile digitalen azterketa eta erabilpenean aurrerapauso bat eman da, eta proposatu diren metodologiak, ikerketa berriak aurrera eramateko baliagarriak izango dira.



## ESKERRAK

---

Tesi abentura honetan hasi aurretik, urte batzuk neramatzan lanerako motibazioa agortuta nuela, eta nire buruarengan konfiantza gutxirekin lan eginez. Aitortzen dut tesia bukatzeko konfiantza gutxirekin hasi nuena bidea, baina tesiak eskatzen dituen lanak egiten joan naizen bezala; bilerak, saiakuntzak, kongresuak, parrandaren bat, idatziak, argitalpenak, eta abarrek ilusioa eta niregan konfiantza berreskuratuarazi didatela esan dezaket.

Lehenik eta behin, lanean goibel nengoenean bere gertutasuna azaldu izan didatenei eskerrak eman nahi nizkieke, Ugutzeri, Iñakiri, Juaneri, besteak beste. Baita Mikel Iturrateri, behin eta berriro niregan sinetsi eta tesia egiten hasteko animatzeagatik. Baita ere zailtasunak gainditzen lagundu didaten Xabier Amezua bezalako DEHI taldeko, ingeniari mekanikoko, eta Gipuzkoako ingeniari eskolako lankide guztiei, eta baita bereziki ere, tesia bere zuzendaritzapean egiteko aukera eman didan Eneko Solaberrietari. Zuzendari aparta izan da, beti bidea errazteko eta laguntzeko prest, momentu oro animatzen, eta horretaz gain, nik nahi izaten dudana lanerako askatasuna eta autonomia eskatu behar gabe errespetatzen.

Eskertze hauetan familia ezin dut ahaztu, eskerrak aita eta amari beraien baldintza gabeko betiko maitasun eta laguntzagatik. Nere arrebari eta bere hortz klinikako lankideei eskaini dizkidaten baliabideengatik, ezagutza eta laguntzagatik. Bukatzeko nola ez, etxekoen animoak eta laguntza ere eskertu behar ditut: Ane alabari irudiekin eta ingelesarekin laguntzeagatik, Aitor semeari saiakuntzekin eta Excel-arekin laguntzeagatik, eta bereziki Nerea nire bikoteari, elkarrekin daramagun bide luze honetan zehar, beharra izan dudan guztietan hor egoteagatik.

## 0. AURKIBIDEA

---

<b>0. AURKIBIDEA .....</b>	<b><i>i</i></b>
<b>1. SARRERA .....</b>	<b>1</b>
<b>2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA.....</b>	<b>5</b>
<b>2.1 SARRERA.....</b>	<b>5</b>
<b>2.2 GIZA OKLUSIOKO FUNTSEZKO ELEMENTU BIOLOGIKOEN AZALPENA .....</b>	<b>10</b>
2.2.1 GAREZURRA .....	10
2.2.2 HORTZAK .....	12
2.2.3 ATM: ARTIKULAZIO TENPOROMANDIBULARRA .....	15
2.2.4 MURTXIKATZE GIHARRAK.....	18
<b>2.3 OKLUSIOAREN INGURUKO TERMINOLOGIA ETA DEFINIZIOAK.....</b>	<b>22</b>
2.3.1 TERMINOLOGIA .....	22
2.3.2 HORTZEN ARTEKO KONTAKTU PUNTUAK ETA INDARRAK.....	24
2.3.3 ERREFERENTZI GEOMETRIKOAK .....	26
<b>2.4 ARTIKULADOREAK.....</b>	<b>29</b>
2.4.1 ARTIKULADOREAREN FUNTZIOA ETA OSAGAIK .....	29
2.4.2 ARTIKULADORE MOTAK ETA SAILKAPENA.....	31
2.4.3 PAZIENTEEN ERREGISTROAK ETA ARTIKULADOREAREN PRESTAKUNTZA .....	36
<b>2.5 OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALAK.....</b>	<b>39</b>
2.5.1 SARRERA .....	39

## 0. AURKIBIDEA

---

2.5.2	T-SCAN OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALA .....	44
2.5.3	OCCLUDENSE OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALA .....	50
2.5.4	T-SCAN ETA OCCLUDENSE ANALIZATZAILEEN KONPARAZIO TAULA.....	53
<b>2.6</b>	<b>ANALIZATZAILE DIGITALEI BURUZKO GAIAREN EGOERA .....</b>	<b>56</b>
2.6.1	OKLUSIOA ANALIZATZEKO METODO TRADIZIONALAK ETA DIGITALEN GARAPENA	56
2.6.2	ANALIZATZAILEEN INDARREN NEURKETA ALDAGAIK.....	60
2.6.3	GIZA OKLUSIO BIOMEKANIKAREN INDAR KONTZEPTUEN ULERMENA ETA SAIKUNTZAK .....	67
2.6.4	ANALIZATZAILEEN ZEHAZTASUN DEFINIZIOAK ETA ESTUDIOAK .....	72
2.6.5	MOMENTU EZBERDINETAN HARTUTAKO OKLUSIO ERREGISTROEN DOITASUNA ..	81
<b>3.</b>	<b>BALIABIDE METODOLOGIKOAK .....</b>	<b>85</b>
<b>3.1</b>	<b>SARRERA .....</b>	<b>85</b>
<b>3.2</b>	<b>IN-VIVO ETA IN-VITRO SAIKUNTZAK.....</b>	<b>85</b>
3.2.1	IGELTSUZKO HORTZERIAK.....	87
3.2.2	EZ-ARCON MOTAKO ARTIKULADORE ERDI DOIGARRIA .....	88
3.2.3	MURTXIKATZE INDARRA SIMULATZEKO SISTEMA ETA ELEMENTUAK.....	89
3.2.4	OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALEN KOKAPENAK .....	93
<b>3.3</b>	<b>NEURKETA APARATUEN DOITASUNA NEURTZEKO GRR METODOLOGIA .....</b>	<b>94</b>
3.3.1	ZEHAZKAKO GRR METODOLOGIAREN planteamendua eta HELBURUA.....	94
3.3.2	ZEHAZKAKO GRR METODOLOGIA BURUTZEKO PAUSOAK .....	97
<b>4.</b>	<b>HELBURU OROKORRAK .....</b>	<b>101</b>
<b>5.</b>	<b>ARTIKULUEN AZALPENA.....</b>	<b>103</b>
<b>5.1</b>	<b>1. ARTIKULUA: Murtxikatze indarren zentroak, oklusioko kontaktu indarren posizioan duen eragina, oklusio analizatzaile digital bat erabiliaz.....</b>	<b>103</b>
5.1.1	HELBURU ZEHAZKAK ETA HIPOTESIAK.....	103

5.1.2	METODOLOGIA.....	104
5.1.3	EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	107
<b>5.2</b>	<b>2. ARTIKULUA: Oklusio kontaktu indarren ezker eta eskuin oreka neurtzeko, 2 oklusio analizatzaile digitalen errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna: in-vitro azterketa.....</b>	<b>113</b>
5.2.1	HELBURU ZEHATZAK ETA HIPOTESIAK.....	113
5.2.2	METODOLOGIA.....	114
5.2.3	EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	117
<b>5.3</b>	<b>3. ARTIKULUA: Oklusio analizatzaile digitalekin hartutako erregistroen doitasuna hobetzeko teknika.....</b>	<b>123</b>
5.3.1	HELBURU ZEHATZAK ETA HIPOTESIAK.....	123
5.3.2	TEKNIKAREN AZALPENA.....	123
5.3.3	EZTABAIDA.....	128
<b>6.</b>	<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>131</b>
<b>7.</b>	<b>ETORKIZUNERAKO LANAK.....</b>	<b>135</b>
<b>8.</b>	<b>LANAREN EKARPENAK.....</b>	<b>141</b>
<b>9.</b>	<b>ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK.....</b>	<b>143</b>

## **IRUDIEN AURKIBIDEA:**

<b>2-1. irudia.</b> CBCT “Cone Beam Computed Tomography” makina digitalarekin jasotako hortz eta masailezurren irudiak.....	7
<b>2-2. irudia.</b> Eskaner digitalarekin jasotako hortzerien 3 dimentsiotako gainazalen irudiak.....	7
<b>2-3. irudia.</b> Hortz ordezkoen sorrera, guztiz digitalizatua dagoen prozedura erabiliz.....	8
<b>2-4. irudia.</b> Oklusioa digitalizatzeke gailua.....	9
<b>2-5. irudia.</b> Garezuraren irudia.....	10
<b>2-6. irudia.</b> Barailaren irudia.....	11
<b>2-7. irudia.</b> Maxilarraren irudia.....	12
<b>2-8. irudia.</b> Gizakien hortzen taldekatzea.....	13
<b>2-9. irudia.</b> 36 hortz eta hagin dituen gizaki helduen hortzeria.....	14
<b>2-10. irudia.</b> ATM: artikulazio tenporomandibularra.....	15
<b>2-11. irudia.</b> ATM-aren mugimendu nagusiak.....	17
<b>2-12. irudia.</b> ATM-aren ahoa irekitzeko mugimenduak. A; ahoa itxita, B; ahoa gradu gutxiz irekita. C; ahoa oso irekita.....	18
<b>2-13. irudia.</b> Gihar maseteroa.....	19
<b>2-14. irudia.</b> Gihar tenporala.....	20
<b>2-15. irudia.</b> A; gihar pterigoideo mediala, B; gihar pterigoideo albokoa.....	20
<b>2-16. irudia.</b> Gihar digastrikoa.....	21
<b>2-17. irudia.</b> Kondiloen posizioa erlazio zentriko posizioan daudenean.....	23
<b>2-18. irudia.</b> Aho barrunbetik eta albotik ikusitako hortzerien IMP-a.....	23
<b>2-19. irudia.</b> Goiko eta beheko hortz uztaien arteko kontaktu puntuak.....	24
<b>2-20. irudia.</b> Hagin bateko kontaktu puntuak eta kontaktu indarrak.....	25
<b>2-21. irudia.</b> Hortzerian zehar sortzen diren kontaktu indarrak.....	25



<b>2-22. irudia.</b> Giza gorputzaren erreferentzia planoak.....	26
<b>2-23. irudia.</b> Giza gorputzaren erreferentzia planoak.....	27
<b>2-24. irudia.</b> Odontologiako erreferentzia planoak.....	28
<b>2-25. irudia.</b> Artikuladore mekanikoaren osagai nagusiak.....	29
<b>2-26. irudia.</b> Artikuladore mekanikoaren egitura orokorra.....	30
<b>2-27. irudia.</b> Artikuladore mekanikoaren mugimendu erlatiboa.....	31
<b>2-28. irudia.</b> Ezagutzen den historiako lehen artikuladore mekanikoa.....	32
<b>2-29. irudia.</b> A; Arcon motako artikuladorea, B; ez-Arcon motako artikuladorea.....	32
<b>2-30. irudia.</b> Technoflux markako artikuladorea.....	33
<b>2-31. irudia.</b> Mestra markako artikuladorea.....	34
<b>2-32. irudia.</b> Artex markako artikuladorea.....	35
<b>2-33. irudia.</b> Panadent markako artikuladorea.....	35
<b>2-34. irudia.</b> Artikuladorearen muntaketa egiteko jarraitu beharreko urratsak.....	36
<b>2-35. irudia.</b> Artikuladorearen goiko osagaiaren plano eta Frankfort plano bat datoz.....	38
<b>2-36. irudia.</b> Camper plano pazientean eta artikuladorean.....	38
<b>2-37. irudia.</b> 100 kgf-ko gaitasuna duen IDDK dinamometro digitala.....	39
<b>2-38. irudia.</b> FSR 151 sentorearekin eginiko indar neurketa.....	40
<b>2-39. irudia.</b> Flexiforce sentorearekin eginiko indar neurketa.....	40
<b>2-40. irudia.</b> GM10 indar transduktorearekin eginiko indar neurketa.....	41
<b>2-41. irudia.</b> Dental Prescale presio sentikor filmarekin eginiko presio neurketa.....	41
<b>2-42. irudia.</b> T-Scan sistema. A, T Scan dispositiboa eta sentorea. B, paziente bati hartutako erregistroa. C, software programa.....	42
<b>2-43. irudia.</b> OccluSense sistema. A, OccluSense dispositiboa eta bere sentorea. B, paziente bati hartutako erregistroa. C, software programa.....	43

## 0. AURKIBIDEA

---

<b>2-44. irudia.</b> Accura sistema; Accura dispositiboa eta bere sentsorea, software programa....	43
<b>2-45. irudia.</b> T-Scan Novus sistema osatzen duten 3 elementu nagusiak: eskuko pieza, sentsorea eta software programa propioa. ....	44
<b>2-46. irudia.</b> T-Scan Novus sentsorearen neurriak eta "senselak". ....	45
<b>2-47. irudia.</b> T-Scan programak eskaintzen duen pantaila nagusia. ....	47
<b>2-48. irudia.</b> Eskaneatutako STL artxiboa inportatu eta hertz neurri errealak. ....	48
<b>2-49. irudia.</b> Implanteak dauden tokietan jarritako oharrak. ....	48
<b>2-50. irudia.</b> Ezker-eskuin oreka, zentroaren ibilbidea, denbora barra. ....	49
<b>2-51. irudia.</b> OccluSense sistema osatzen duten 3 elementu nagusiak: eskuko pieza, sentsorea eta software programa propioa. ....	50
<b>2-52. irudia.</b> Occlusense sentsoreak hertz kontaktu puntuetan utzitako markak.....	51
<b>2-53. irudia.</b> OccluSense programak eskaintzen duen pantaila nagusia.....	53
<b>2-54. irudia.</b> Silikonak hortzaren forma erreplikatzeko du.....	56
<b>2-55. irudia.</b> Paper artikulatuek hortzak margotuz oklusio puntuak detektatzen dituzte. ....	57
<b>2-56. irudia.</b> T-Scan HD sentsorearen azalera efektiboaren hobekuntza. ....	59
<b>2-57. irudia.</b> Oklusioa ebaluatzeko sistemen erabilera tasa. ....	60
<b>2-58. irudia.</b> Sensel bakoitzean dagoen indar intentsitatea kolore eskalan adierazita.....	61
<b>2-59. irudia.</b> Sensel bakoitzean dagoen indar aldaketa eta intentsitatea.....	61
<b>2-60. irudia.</b> Sensel bakoitzean dagoen indar altueraren eta kolorearen esanahia.....	62
<b>2-61. irudia.</b> Hertz bakoitzean dagoen indar ehunekoaren balio numerikoaren kalkulua. ....	62
<b>2-62. irudia.</b> T-Scan-ak ezker-eskuin indarren orekak kalkulatu eta adierazten ditu. ....	64
<b>2-63. irudia.</b> OccluSense-ak hertz sektore bakoitzaren indar ehunekoa ematen du. ....	64
<b>2-64. irudia.</b> T-Scan sistemaren softwareak kalkulatuak kontaktu indarren zentroa eta bere ibilbidea. ....	65

<b>2-65. irudia.</b> T-Scan sistemaren softwareak, bi hortzeria desberdinetan azaltzen dituen kontaktu indar zentroen posizioak eta beraien ibilbideak.....	66
<b>2-66. irudia.</b> IMP-an, oklusioan jarduten duten indarrak.....	69
<b>2-67. irudia.</b> IMP-an, parte hartzen duten indarren eskema.....	70
<b>2-68. irudia.</b> Indar zentroak kokatzeko erreferentzi sistema: (X): alboetarako ardatza, (Y): luzeetarako ardatza.....	71
<b>2-69. irudia.</b> In-vitro saiakuntza egiteko erabilitako hortzeria eta prentsa. ....	73
<b>2-70. irudia.</b> In-vitro saiakuntza eginda, kontaktu puntuen kokapenak. ....	73
<b>2-71. irudia.</b> In-vitro saiakuntzekin, kontaktu puntuen indar intentsitateak. ....	74
<b>2-72. irudia.</b> T-Scan eta Accura sentsoreak igeltsuzko hortzerietara gainjarri ziren kontaktuen detekzio zehaztasuna aztertzeke ....	74
<b>2-73. irudia.</b> T-Scan-aren emaitzen eta STL eskaneaketaren arteko lerrokatzea eta proiektzioa. ....	75
<b>2-74. irudia.</b> In-vitro egindako kontaktu indarren zehaztasunen konparaketak.....	76
<b>2-75. irudia.</b> In-vitro egindako kontaktu indarren zehaztasunen konparaketak.....	77
<b>2-76. irudia.</b> Zehaztasunaren, egiazkotasunaren eta doitasunaren azalpena.....	78
<b>2-77. irudia.</b> Errepikakortasunaren azalpena.....	79
<b>2-78. irudia.</b> A, B eta C neurketa baldintza desberdinak izanik, erreproduzigarritasunaren azalpena.....	79
<b>2-79. irudia.</b> A, B eta C neurketa baldintza desberdinak izanik, doitasunaren azalpen grafikoa. ....	80
<b>2-80. irudia.</b> A, T-Scan sentsorearen bi kokapen ebakortzen arteko ardatzarekiko biratuz, B, sentsorea A posizioetan egonik hartutako oklusio erregistroak. ....	83
<b>3-1. irudia.</b> Oklusio indarrak aztertzeke in-vitro saiakuntza.....	87
<b>3-2. irudia.</b> Bi gizabanakoren igeltsuzko hortzeriak.....	88
<b>3-3. irudia.</b> Artex CN (Amann Girrbach) artikuladore erdi doigarria. ....	89

## 0. AURKIBIDEA

---

<b>3-4. irudia.</b> A; zulagailu bertikala, B; zapaltzeko punta esferikoa, C; kontrolatutako indarra ezartzeko pisua eta dinamometroa.....	90
<b>3-5. irudia.</b> Puntaren desplazamenduaren azalpen grafikoa. ....	91
<b>3-6. irudia.</b> Murtxikatze indar desorekatua kontrolatzeko txantiloia. (X): zeharkako ardatza, (Y): luzeetarako ardatza. ....	92
<b>3-7. irudia.</b> Oklusio analizatzaileentzat neurria fabrikatutako euskarriak. ....	93
<b>3-8. irudia.</b> Analizatzaileen sentsorea hortzerietan kokatzeko sistema. ....	93
<b>3-9. irudia.</b> Zeharkako GRR metodologiaren neurriak hartzeko eskema. ....	95
<b>3-10. irudia.</b> GRR metodologiak neurketen doitasun falta kuantifikatu dezake. ....	95
<b>3-11. irudia.</b> GRR metodologiak errepikakortasun eta erreproduzigarritasun falta kuantifikatu dezake.....	96
<b>5-1. irudia.</b> Saiakuntzaren sarrera-indarra 9 posizioetan aplikatzeko txantiloia.....	105
<b>5-2. irudia.</b> 169 N-ko magnitudea duen sarrera-indarraren aplikazioa.....	106
<b>5-3. irudia.</b> KI-Z-aren X eta Y koordinatuen kutxa diagramak, 3 hortzerientzat. ....	108
<b>5-4. irudia.</b> KI-Z-aren, 3 hortzerientzat, kokapenen grafikoak. ....	109
<b>5-5. irudia.</b> KI-M ehunekoen, 3 posizio multzoen, balio grafikoak. ....	110
<b>5-6. irudia.</b> A, T-Scan analizatzailea; B, OccluSense analizatzailea; C, OccluSense analizatzailea zentratzailearekin. ....	114
<b>5-7. irudia.</b> 145 N-ko magnitudea duen sarrera-indarraren aplikazioa.....	115
<b>5-8. irudia.</b> T-Scan eta OccluSense analizatzaileentzat erabili beharreko piezak. ....	124
<b>5-9. irudia.</b> 3D inprimagailuan fabrikatutako piezak: A, egokitzailea, B, kubetaxoa. ....	124
<b>5-10. irudia.</b> Kubeta bi ebakortzen tartean ondo sartzeko prozesua.....	125
<b>5-11. irudia.</b> Pazientearen hortz inpresioak hartzen. ....	126
<b>5-12. irudia.</b> Goiko hortzeriaren aurrealdeko inpresioa.....	126
<b>5-13. irudia.</b> Pertsonalizatutako kubeta, T-Scan analizatzaileera egokituta. ....	127

<b>5-14. irudia.</b> T-Scan analizatzailearekin erregistro hartzea.....	127
<b>7-1. irudia.</b> Elementu finitoen metodoaz eginiko analisi estatikoak ematen dituen indar balioak .....	136
<b>7-2. irudia.</b> Bolen zurruntasuna aldatuz, kontaktu indarren erantzuna aztertu. ....	137
<b>7-3. irudia.</b> Egiatzotasuna kuantifikatzeko 3 hanka dituen pieza simetrikoa.....	138
<b>7-4. irudia.</b> Kontaktu puntuen posizioen egiatzotasunaren saiakuntza-erantzua.....	138
<b>8-1. irudia.</b> INGEGRAF 2023 kongresuaren aurkezpen agiria. ....	142

**TAULEN AURKIBIDEA:**

**2-1. taula.** T-Scan Novus sentsoarearen ezaugarri teknikoak ..... 46

**2-2. taula.** OccluSense sentsoarearen ezaugarri teknikoak ..... 52

**2-3. taula.** T-Scan eta OccluSense sistemen arteko prestazio konparaketa ..... 54

**2-4. taula.** T-Scan sentsoarearen eboluzioa ..... 58

**2-5. taula.** IMP-ra iristean, oklusio indarrentzat erabilitako laburdurak ..... 70

**3-1. taula.** GRR metodoaren emaitza taula adibidea ..... 98

**3-2. taula.** AIAG erakundeak doitasuna, errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna ebaluatzeko proposatzen duen irizpidea ..... 99

**5-1. taula.** Kontaktu indarren oreka neurtzeko protokolo esperimentalak ..... 116

**5-2. taula.** T-Scan gailuaren GRR metodoaren emaitza taula ..... 117

**5-3. taula.** OccluSense gailuaren GRR metodoaren emaitza taula ..... 118

**5-4. taula.** OccluSense zentratzeko pieza duela gailuaren GRR metodoaren emaitza taula ..... 118

**5-5. taula.** Hiru oklusio analizatzaile aukeren doitasunen konparazio taula ..... 119

## 1. SARRERA

---

Odontologia, gizateriaren historian zehar bilakaera esanguratsua izan duen zientzia medikoa da. Aitzinean anestesia gabeko hortzen estrakzioak egitetik, gaur egun egiten diren prozedura oso espezializatuetaraino, odontologia, hortzetako arazoak eta gaixotasunak konpontzeaz gain, aho barrunbearen ematen den eta konplexutasun maila altua duen biomekanika ulertzen saiatzen da. Aho barrunbeko biomekanikak osasunaren egoerarekin harreman zuzena duenez, historian zehar hozkadaren mekanika beti izan da funtsezko azterketa eremua odontologian.

Oklusio indarrak, hau da, goiko eta beheko hortzeriak kontaktuan daudenean elkarren arteko indarrak, hortzetako biomekanikaren funtsezko alderdia dira. Indar horiek, askotan eguneroko bizitzan oharkabean pasatzen diren arren, berebiziko garrantzia dute murtxikatze funtzioan, hitz egiteko fonazioan eta aho barrunbearen egonkortasunean. Hortzetako eta aurpegi masailetakoko gaixotasun ugari diagnostikatzeko eta tratatzeko, oklusio indarrak behar bezala ulertzea funtsezkoa da, beraz azpimarratzekoa da hozkadaren mekanika ikuspegi sakon batetik ikertzeak duen garrantzia.

Hozkadaren biomekanika, eta bereziki oklusio indarrak sakon ulertzeko, aho barrunbearen dauden elementu biologikoak eta berain erlazioak ezagutzea ezinbestekoa da. Tesi honetan egiten den azterketa biomekaniko honetan, edozein sistema mekanikotan gertatzen den bezala, sistemaren egitura elementuak (garezurra eta ahoko hezurak), egitura elementuen arteko kontaktu formak (hortzen geometriak), egitura elementuen arteko loturak (giltzadura tenporomandibularra),

## 1. SARRERA

---

eta egitura elementuetan dauden kanpo indar eragileak (murtxikatzeko giharrak), eta horien guztien elkarren arteko lotura eta erlazioak aztertu dira.

Oklusio indarren izaera eta ezaugarriak, eta indar hauek nola banatzen diren ere aztertu da. Goiko eta beheko hortzak kontaktuan jartzen direnean, beraien artean interakzio konplexuak dituzte, eta ahoa ixten doan heinean, hortzek ahoan duten kokapenaren arabera indarrak aldatzen doaz, ahoa guztiz itxita egon arte. Une horretan hortzak egoera estatiko batera iritsiko dira, baina horrela izanda ere oklusio indarrak ez dute zergatik guztiz estatiko edo konstanteak izan beharrik, beraz oklusio indarren ulermena gai konplexu bat da.

Oklusio indarrak ulertzeaz gain, praktika odontologikoan, hauen neurketak eta ebaluazioak funtsezkoak dira. Honela bada, pazienteen oklusio indarrak neurtzeko eta aztertzeko erabiltzen diren teknikak eta tresnak ere aztertu dira. Oklusio indarren ebaluazioak hortzetako gaixotasunak (aho inplanteen porrotak, egitura protesikoan haustura, bruxismoa, artikulazio tenporomandibularren gaixotasuna, besteak beste) diagnostikatzeko eta tratatzeko lagun dezake, horregatik hauek neurtzeko erabiliko diren teknika eta gailuen fidagarritasuna eta zehaztasuna kritikokoak dira.

Oklusio analizatzaile digitalak hozkada ematen den bitartean gertatzen diren kontaktuak eta horietan azaltzen diren indarrak neurtzeko gailuak dira. Gailu hauek presio sentore sentikorrek dituzte, eta hauek goiko eta beheko hortzerien arteko ukipen puntuetan kokatzen dira. Sentore hauek, hozkada ematean denbora errealean egindako indarra erregistratzen dute. Indarren datuak, denbora errealean ordenagailu pantailan bistaratu daitezke, eta horri esker, odontologoak grafikoki ikus dezake nola banatzen diren indarrak hozkadan zehar. Gailu hauen zehaztasuna eta fidagarritasuna alderdi kritikokoak direnez, merkatuan dauden analizatzaile digital hauen zehaztasuna ebaluatu beharra dago. Zentzu honetan, fabrikatzaileak egindako



balioztatze kliniko kontuan hartzea garrantzitsua da, baina ikerketa independenteak burutzea beharrezkoa da, fabrikatzailearenak kontrastatu eta osatzeko.

Odontologian ez ezik, gaur egungo medikuntzan oklusio indarrek pazientearen osasun orokorrean izan dezaketen eraginak gero eta interes handiago du. Duela gutxi egindako ikerketek, erakutsi dute hortzetako oklusio desegokiek arazo sistemiko batzuk eragin ditzaketela, hala nola, zefalea, loaren ezintasuna eta min kronikoa, besteak beste [1–5]. Beraz, doktorego tesi honetan aztertu diren oklusioaren biomekanika eta hortzen arteko kontaktu indarrak, diziplinarteko lankidetzaren desberdinen artean ikerketa eremu izaten jarraitzen dute. Hau horrela izanik, lan hau eremu horretan aurrerapauso bat izatea espero da.

## 1. SARRERA

---

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

### 2.1 SARRERA

Doktorego tesi hau UPV/EHU-ko Doktorego Eskolara atxikitako Proiektuen Ingeniaritza doktorego programan, UPV/EHU-ko Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak saileko Dental Engineering – Hortz Ingeniaritza (DEHI: [www.ehu.eus/dehi](http://www.ehu.eus/dehi)) ikerketa taldean garatu da. DEHI ikerketa taldearen ikerketa jarduera, bere izenak adierazten duen bezala, ingeniari-tza eta odontologia arloetara dago zuzenduta. Horrela bada, ikerketa talde honen jarduera, ZTBP EUSKADI 2030 planaren ikerketa eta berrikuntza politikarekin zein plan honen printzipio nagusienetako bat den RIS3 Euskadi txostenean zehaztutako fabrikazio aurreratua eta biozientziak nahiz osasuna lehentasun estrategikoekin lerrokatuta dago.

Ikerketa talde honen helburua ordenagailuz lagundutako diseinuaren eremuan eta honekin erlazionaturiko alderantzizko ingeniari-tza, diseinu generatiboa, fabrikazio gehigarria eta errealitate areagotua bezalako eremuetan ikerketa egitea da. Hala, doktorego tesi hau DEI ikerketa taldeak abian duen “Dinamika mandibularra” izeneko ikerketa lerroaren barruan garatu da.

Ingeniaritza eta osasunaren arteko loturak, azken urteotan indarra hartu du eta Bioingeniaritza izenez egin da ezagun. Bioingeniaritza, EAMBES-en (European Alliance for Medical and Biological Engineering and Science) arabera, ingeniari-tzako diseinu eta analisi printzipioak sistema biologikoetan eta teknologia biomedikoetan

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---


aplikatzen dituen diziplina da [6]. Tesi honetan lantzen diren gaiak teknologia biomedikoen artean kokatzen dira eta hauek azpitalde ezberdinetan sailkatu daitezkeen arren, lan honetan aztertu diren oklusio analizatzaile digitalak, odontologiarako instrumentazio biomediko eta irudien analisirako tresnen multzoan sartzen dira.

Odontologia Osasun-Zientziatako ezagutza arlo bat da eta aparatu estomatognatikoan gerta daitezkeen gaixotasunak tratatzeaz, hauen prebentzioaz eta diagnosiaz arduratzen da. Aparatu estomatognatikoa organo eta ehun multzo bat da, eta multzo honek gizakietan ohikoak diren funtzio fisiologikoak betetzea ahalbidetzen du: jan, hitz egin, ahoskatu, murtzikatu, irentsi, eta abar. Beraz, odontologoa, aurpegi-masailezur eremuaren eta bertako egituren gaitz edo desordenen ebaluazioa, diagnostia, prebentzioa eta tratamendua (kirurgikoa edo ez-kirurgikoa) zehazteaz eta gauzatzeaz arduratuko den profesionala da.

### **Odontologia digitala**

Teknologia digitala, lan arlo gehienetan bezala, odontologian lana egiteko modua eta metodoak aldatzen ari da, eta teknologia digitalizatuak hortzetako tratamenduak geroz eta hobeak izan daitezzen laguntzen dute [7]. Odontologia digitalaren bitartez lan ingurune berri bat sortzen da, non ordenagailuak, software programak eta hauekin integratutako odontologiarako gailuak erabiltzen diren. Tresna digital hauekin guztiekin, datuak, irudiak, ordezko hortz piezak lantzeko modu berritzaileak sortu dira.


Odontologia digitalaren funtsezko elementu bat erradiografia digitala da (2-1. irudia), honek erradiografia tradizionalak, bereizmen handiko irudi digitalekin ordezkatzen ditu [8]. Erradiografia digitalaren bitartez, erradiazioarekiko esposizio txikiagoa, irudien berehalako bistaratzea eta datuak modu eraginkorragoan biltegitratzeko eta partekatzeko gaitasuna ahalbidetzen da [9, 10].



*Iturria: Norberak egindakoa, Planmeca katalogotik hartutako irudiak erabilia.*

**2-1. irudia.** CBCT “Cone Beam Computed Tomography” makina digitalarekin jasotako hortz eta masailezurren irudiak.

Ontologia digitalean, aho barruko eskaneatzea funtsezko beste teknika bat da. Eskaner intraorala deituriko gailuek (2-2. irudia), paziente baten ahotik hiru dimentsioko geometria zehatzak digitalizatzeko aukera ematen dute [11].




*Iturria: Norberak egindakoa, Medit katalogotik hartutako irudiak erabilia.*

**2-2. irudia.** Eskaner digitalarekin jasotako hortzerien 3 dimentsiotako gainazalen irudiak.

Eskaneaturiko geometriak, adibidez CAD/CAM teknologia digitalak erabiliaz [12] ordeztuak diren protesi pertsonalizatuak diseinatzeko (2-3. irudia), eta kirurgiarako gida pertsonalizatuak egiteko [13] erabiltzen dira,.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---




Iturria: [14] tesi lana.

**2-3. irudia.** Hartz ordezkoen sorrera, guztiz digitalizatua dagoen prozedura erabiliz.

Gainera, odontologia digitalak, odontologoek, hartz laborategien, eta pazienteen arteko komunikazioa hobetu du, datuak Internet bidez azkar eta zehatz bidali baitaitezke. Honek guztiak, hartz tratamendu askotan (hartz inplanteak [15],

protesien sorrera, ortodontzia digitala [16], irribarren diseinuaren plangintza [17], eta abar) iraultza teknologiko bat eragin du.

Lan honetan, odontologiako hainbat espezialitatetan eta hortz tratamendutan integratu daitezkeen oklusio analizatzaile digital izeneko gailu digitalak aztertu dira. Gailu hauen helburua, giza oklusio dinamikan zehar hortzen artean ematen diren kontaktuak detektatu eta bertan gertatzen diren indarrak neurtzea da (2-4. irudia). Odontologoak datu horiek ordenagailuko pantaila batean ikus ditzake, eta horri esker, pazientearen oklusioa sakonago uler eta azter dezake [18].



*Iturria: Norberak egindakoa T-Scan katalogoa eta programa erabiliz.*

### **2-4. irudia.** Oklusioa digitalizatzeko gailua.


Analizatzaile digitalek zehaztasun egokia izatea ezinbestekoa denez, gaur arte merkatuan dauden gailuen zehaztasun konparaketa independenteak egin dira [19–23]. Baina horretaz gain, gailu hauen erabilera eta ematen duen informazioa zentzuz tratatu ahal izateko, jarraian azalduko diren oklusioaren biomekanikako elementuak eta kontzeptuak ulertzea ezinbestekoa da.

## 2.2 GIZA OKLUSIOKO FUNTSEZKO ELEMENTU BIOLOGIKOEN AZALPENA

Giza oklusioaren definizio asko daude, baina erraz ulertzeko honela definitu daiteke: ahoa ixteko mugimenduan zehar masailezurreko edo goiko hortzen eta barailako edo beheko hortzen arteko harremana eta kontaktua [24]. Ahoa ixteko mugimendua arrazoi askorengatik eman daiteke: murtxikatzeko, arnasa hartzeko, hitz egiteko, edo lo egiteko, besteak beste. Giza oklusioa prozesu biologiko konplexua da, eta hainbat elementu eta faktore biltzen ditu [25]. Jarraian giza oklusioan parte hartzen duten funtsezko elementu biologikoak laburki deskribatzen dira [26].

### 2.2.1 GAREZURRA

Garezurra buruaren barrunbea osatzen duen hezur egitura da. Garuna hartzeaz gain, aurpegiko eta ahoko egitura asko ere hartzen ditu. Ondorengo 2-5. irudian, garezurraren forma eta osagai garrantzizkoenak erakusten dira.




*Iturria: Norberak egindakoa [27] egokituz.*

**2-5. irudia.** Garezurraren irudia.



Garezurraren parte izanik, goiko eta beheko hortzei eusten dieten hezurak, hurrenez hurren goiko masailezurra (maxila) eta beheko masailezurra (baraila) dira. Hezur horien formak eta posizioak, neurri handi batean, oklusioa baldintzatzen dute [28].

Baraila edo beheko masailezurra ere deitua, giza garezurreko hezur mugikor bakarra da (2-6. irudia) eta murtxikatzeko nahiz hitz egiteko funtsezko hezurra da. Bere mugimendua konplexua da eta horregatik garezurraren hezur tenporalarekin kondiloetatik giltzatuta dago. Hezur tenporala eta barailaren lotura mugikor honi artikulazio tenporomandibularra (ATM) deitzen zaio. Beraz, jateko eta hitz egiteko behar diren masailezurren arteko mugimenduak ahalbidetzen dituena ATM-a da.



### **BARAILA**

*Iturria: Norberak egindakoa [27] egokituz.*


**2-6. irudia.** Barailaren irudia.

Maxilarra, edo goiko masailezurra ere deitua, hezur finkoa bat da (2-7. irudia). Ahosabaiko gangaren erdiko zatia da, eta hortzak goiko hortz albeoloetan sartuta ditu.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

Gainera, goiko masailezurra sudur barrunbearen oinarria da, eta begi orbitaren zatia da, sudur egiturari eta begiaren kokapenari lagunduz [28].



*Iturria: Norberak egindakoa [27] egokituz.*


**2-7. irudia.** Maxilarraren irudia.

### 2.2.2 HORTZAK

Gizakien hortzak, aho barrunbeto baraila eta maxilar hezurretan kokatuta dauden eta oso gogorrak diren egitura anatomiko espezializatuak dira. Hortzen funtsezko zeregina elikagaien murtxikatzea da, baina fonazioan eta aurpegi itxuran ere izugarrizko garrantzia dute. Gizaki heldu batek guztira 36 hortz edo hagin izan ditzake, eta behe hortzerian kokatzen den hortz bakoitzeko, goiko hortzerian bere antagonista

bat du. Beraz, bere funtzioak ondo betetzeko, beheko hortzeria eta goikoa modu osagarri batean diseinatuta eta kokatuta daude.

Bere posizioa eta betetzen duten funtzioaren arabera, gizakien hortzak lau taldetan banatu daitezke (2-8. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa [27] egokituz.*

**2-8. irudia.** Gizakien hortzen taldekatzea.

**Ebakortzak:** aurrealdeko hortzak dira eta forma laua eta ebakitzaila dute. Goiko hortzerian lau ebakortz daude (erdiko bi eta alboko bi), eta beheko hortzerian hauen lau ebakortz antagonistak. Hortz hauek jaterakoan elikagaiekin kontaktuan sartzen diren aurrenak dira eta ebakitzeko forma zorrotza dute.

**Letaginak:** ahoaren izkinetan dauden hortz zorrotzak dira, bi goialdean eta bi behealdean. Forma konikoa dute eta elikagaiak zatitzeko eta urratzeko erabiltzen dira.


## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

**Aurreko haginak:** aurreko haginak, letaginen atzean kokatuak dauden hortz handiagoak eta lauagoak dira. Hortzeria erdi bakoitzean bi aurreko hagin daude, beraz lau goialdeko hortzerian eta lau behealdekoan. Aurreko haginak elikagaiak birrintzeko eta ehotzeko diseinatuta daude.

**Molarrak:** atzeko haginak ere deitzen zaie eta ahoko hortz pieza handienak eta zabalenak dira. Hortzeria erdi bakoitzak hiru molar ditu. Hortz hauek gainazal lauak eta zimurtsuak dituzte, eta elikagaiak modu eraginkorren birrintzeko erabiltzen dira. Hirugarren haginak, "epaiketa haginak" bezala ezagutzen direnak, sortzen azkenak dira, eta askotan sor ditzaketen ahoko espazio arazoengatik kentzen dira.

2-9. irudian giza heldu baten 36 hortzen posizioa erakusten da. Beheko hortzeriak, goian hortzeria antagonista du eta berdin gertatzen da hortz indibidual bakoitzarekin.




Iturria: Norberak egindakoa [27] egokituz.

**2-9. irudia.** 36 hortz eta hagin dituen gizaki helduen hortzeria.

### 2.2.3 ATM: ARTIKULAZIO TENPOROMANDIBULARRA

Artikulazio tenporomandibularra (ATM) oso espezializatua den giltzadura bat da, baraila eta garezurreko hezur tenporala elkarrekin lotzen du, eta bien arteko mugimendua ahalbidetu [24]. Giza gorputzaren artikulazio konplexuenetako bat da, eta murtzikatze, irenste eta hitz egite funtsezko funtzioetan ezinbesteko zeregina betetzen du [26, 29, 30]. ATM-aren zati garrantzitsuenak 2-10. irudian erakusten direnak dira.



*Iturria: Norberak egindako, [31] informazioa egokituz.*

**2-10. irudia.** ATM: artikulazio tenporomandibularra.

**Barailako kondiloa:** kondiloa hezur tenporalarekin artikulatzen den barailako zatia da. Barailak, bere adarretako kanpoko bi muturretan bi kondilo ditu, eta bi kondiloak hezur tenporalean dauden bi “hobi glenoidea” deitzen diren barrunbetan sartzen dira.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

**Hobi glenoidea:** hobi glenoidea hezur tenporalean dagoen barrunbe ahur bat da. Bertan barailako forma ganbila duen kondiloa ahokatzen da eta bi hezur zati gogor hauen arteko kontaktuak malgutzeko, bien artean ehun kartilaginosoak daude.

**Disko articularra:** ehun kartilaginosoko disko honek, barailako kondiloaren eta hobi glenoidearen arteko kontaktua babesten du. Ahoa irekitzean eta ixtean, ahoarekin batera mugitzen da, eta mugimendu leuna eta urradurarik gabea ahalbidetzen du.

**Kapsula articularra:** kapsula articularra ehun konektiboko egitura bat da, ATM artikulazioa inguratu eta egonkor mantentzen du, eta giltzadura lubrifikatu eta elikatzen duen likido sinobiala du.

Goiko eta beheko hortzeriak zuzen lerrokatzeko, goiko masailezuraren eta barailaren posizio egokia funtsezkoa da. Horretaz gain, baraila eta maxilarrean arteko edozein mugimendu eta posizio lortzeko artikulazio tenporomandibularraren funtzioak ezinbestekoak dira [32–34]. ATM-an gertatzen diren mugimendu nagusiak honako hauek dira (2-11. irudia).


Irekitze mugimendua: mugimendu honek goiko eta beheko hortzen aldentzea eragiten du, baraila beherantz eta aurrerantz mugituz. Ahoa irekitzean, kondiloa beherantz eta aurrerantz mugitzen da hobi glenoidean zehar.

Ixte mugimendua: irekitzearen kontrako mugimendua da, goiko eta beheko hortzak hurbiltzeko baraila gorantz eta atzerantz mugitzen da. Kondiloa, hobi glenoidean zuen hasierako lekura itzultzen da.

Protrusio mugimendua: protrusioa baraila aurrerantz mugitzean ematen da, beheko hortzak goikoekiko aurrerantz eramanez.

Atzerako mugimendua: atzera egitea protrusioaren kontrako mugimendua da.

Alboko mugimendua: baraila alboetarantz mugi daiteke, eskuinerantz zein ezkerrerantz. Alboko mugimendua elikagaiak birrintzeko eta hitz egitean mugimendu espezifikoak egiteko baliagarria da.




*Iturria: Norberak egindako, [35] informazioa egokituz.*

2-11. irudia. ATM-aren mugimendu nagusiak.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

Ahoa gutxi (12-19 gradu arte edo 20-25 mm arte) ireki nahi bada (2-12. irudiaren A-tik B-ra), kondiloek teorikoki hobi glenoidearen barruan biraketa mugimendua bakarrik egiten dute (errotazio hutsa), baina ahoa asko irekitzeko edo mugimendu luzeagoak egiteko (2-12. irudiaren B-tik C-ra), kondiloek hasieran biraketa mugimendua eta gero hobitik aterata translazio mugimendua ere egiten dute (2-12. irudia).



*Iturria: Norberak egindako, [36] informazioa egokituz.*

**2-12. irudia.** ATM-aren ahoa irekitzeko mugimenduak. A; ahoa itxita, B; ahoa gradu gutxiz irekita. C; ahoa oso irekita.

Murtxikatzeko, arnasa hartzeko, hitz egiteko, edo lo egiteko, besteak beste mugimendu guzti hauen konbinazioak egiten dira.


### 2.2.4 MURTXIKATZE GIHARRAK

Murtxikatze giharrak buruan eta lepoan kokatutako gihar talde bat dira, eta elikagaiak murtxikatzeko eta masailezurraren beste mugimendu batzuk lortzeko funtsezko eginkizuna betetzen dute. Gihar talde honek, ahoa ireki, itxi eta mugitu ahal izateko modu koordinatuan egiten du lan. Murtxikatzean, elikagaiak birrindu behar direnez,



hautako gihar batzuk indar handiak egiteko gaitasuna dute. Jarraian, murtxikatzeko gihar nagusien deskribapena eta irudiak azaltzen dira [26, 37].

**Gihar maseteroa:** gihar maseteroa murtxikatzeko giharrik indartsuena da eta aurpegiaren alboetan kokatuta dago, masail-hezuraren azpian hain zuzen ere (2-13. irudia). Gihar hori masailezurreko barailan ere txertatzen da, eta baraila altxatzeaz eta ixteaz arduratzen da. Elikagaiak birrintzeko behar den indarra egiteko garaian, maseteroa da uzkuertzen den gihar nagusia.




*Iturria: Norberak egindakoa, [38] egokituz.*

**2-13. irudia.** Gihar maseteroa.

**Gihar tenporala:** gihar tenporala buruko bi alboetan lokiak estaltzen dituen gihar handia da. Bi zati ditu; aurreko gihar tenporala eta atzeko gihar tenporala. Gihar hauek masailezurreko barailan eta hezur tenporalean txertatzen dira (2-14. irudia), eta masailezurra igotzearen eta ahoa ixtearen erantzule dira.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---




*Iturria: Norberak egindakoa, [38] egokituz.*

**2-14. irudia.** Gihar tenporala.

**Gihar pterigoideo mediala:** gihar hau masailezurraren barnealdean dago, artikulazio tenporomandibularretik gertu (2-15. irudia). Ahoaren alboko mugimenduetan eta murtxikatze mugimenduetan laguntzen duen giharra da.


**Gihar pterigoideoa albokoa:** gihar hau erdiko pterigoideoaren ondoan dago eta masailezurraren alboko mugimenduetan eta murtxikatzean ere laguntzen du (2-15. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa, [38] egokituz.*

**2-15. irudia.** A; gihar pterigoideo mediala, B; gihar pterigoideo albokoa.

**Gihar digastrikoa:** gihar digastrikoa tarteko tendoi batekin konektatutako bi zuntz muskularrez osatuta dago. Barailaren behealdean eta lepoaren atzealdean txertatzen da eta ahoa irekitzen eta baraila altxatzen laguntzen du (2-16. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa, [38] egokituz.*

**2-16. irudia.** Gihar digastrikoa.

**Gihar milohioideoa:** V formako gihar fina da. Mingainaren azpitik, ahoaren behealdean kokatua, baraila altxatzen eta elikagaiak irensten laguntzen du.

Murtxikatze gihar guztietatik, maseterora eta tenporala giharrik indartsuenak dira eta konpresio indar handiak egiten direnean besteekiko nagusitzen dira. Besteen funtzioa, indar handiak egitea baino mugimenduen sorrera eta koordinazioa izan ohi da [39].

## 2.3 OKLUSIOAREN INGURUKO TERMINOLOGIA ETA DEFINIZIOAK

Oklusioa, goiko eta beheko hortzak elkarrekin nola egokitzen diren eta ahoko jardueretan nola jokatzeko duten azaltzen duen odontologiako terminoa da. Giza oklusioaz hitz egiten denean, oklusio estatikoa eta oklusio dinamikoa bereizi daitezke [24].

**Oklusio estatikoa:** ahoa itxita eta geldirik dagoenean, goiko hortzen eta beheko hortzen arteko ukipenari dagokio, hau da, hortzak kontaktuan egonda baina mugimendurik ez dagoenean. Oklusio estatiko ideal batean, hortzak modu uniformearekin eta orekatuan egokitu behar dira, eta horrela egonik, kontaktu indarrak ere modu orekatu batean banatu behar dira.


**Oklusio dinamikoa:** murtzikatzean, irenstean eta hitz egitean, goiko eta beheko hortzen arteko interakzioari oklusio dinamikoa deitzen zaio. Mugimendu horietan, hau da, irekitze-ixte, alboetarako eta aurrera-atzera mugimenduetan hortzek ez dute beti kontaktu berdina mantentzen, eta ukipen erlazio horri guztiari oklusio dinamikoa deitzen zaio.

### 2.3.1 TERMINOLOGIA

Oklusioaren inguruan erabiltzen den zenbait definizio eta terminologia ezagutzea komeni da, eta jarraian oklusioaren posizioaz hitz egiten denean erabiltzen diren zenbait terminoren definizioak zehazten dira [40].

**Erlazio zentrikoa:** hortzerien arteko posizioa kontutan hartu gabe, kondiloen egoera egonkor, eroso eta orekatu bati dagokion maxilar eta barailaren arteko posizio estatiko egonkor bat da (2-17. irudia) [41]. Egoera hau, hortz protesiak diseinatzeko,


deskarga ferulak fabrikatzeko, edo ortodontzia tratamenduak planifikatzeko abiapuntuko posizioa izan ohi da.



*Iturria: Norberak egindakoa Bausch-en katalogoetako informazioa egokituz.*

**2-17. irudia.** Kondiloen posizioa erlazio zentriko posizioan daudenean.

**Interkuspidadzio maximoko posizioa (IMP):** pertsona batek hozkada normal bat eginez, ahoa modu naturalean ixten duenean, hortzeriak oklusio estatiko posizio horretan aurkitzen dira (2-18. irudia). Hortzeriak posizio horretara iristen direnean, hortzen arteko egokitzeak gerturatze maximoa du eta hortzerien arteko kontaktu puntuak maximizatu egiten dira.




*Iturria: Norberak egindakoa Bausch-en katalogoetako informazioa egokituz.*

**2-18. irudia.** Aho barrunbetik eta albotik ikusitako hortzerien IMP-a.

### 2.3.2 HORTZEN ARTEKO KONTAKTU PUNTUAK ETA INDARRAK


**Kontaktu puntuak:** ahoa ixten denean goiko eta beheko hortzak ukipenean sartzen diren hortzen gainazaleko leku espezifikoak dira (2-19. irudia). Idealki, oklusio estatiko egonkor batek, hortz uztaien atzeko eta aurreko kontaktu puntu ugari izan behar ditu, hortzetan zehar banatuta [24].



*Iturria: Norberak egindakoa, [27] informazioa egokituz.*

**2-19. irudia.** Goiko eta beheko hortz uztaien arteko kontaktu puntuak.


**Kontaktu indarrak:** ahoa ixtean ukipenean sartzen direnean hartz gainazaleko puntuetan azaltzen diren indarrak dira (2-20. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**2-20. irudia.** Hagin bateko kontaktu puntuak eta kontaktu indarrak.

Idealki, hartz bakoitzean dagoen kontaktu indarra, hartzaren sustriaren norabide berdinean egotea komeni da, eta hortzeri guztian zehar azaltzen diren kontaktu indarrak puntu askotan banatuak eta simetrikoki orekatuak egotea komeni da (2-21. irudia) [24, 42].




*Iturria: Norberak egindakoa, [27] informazioa egokituz.*

**2-21. irudia.** Hortzerian zehar sortzen diren kontaktu indarrak.

### 2.3.3 ERREFERENTZI GEOMETRIKOAK

Giza gorputzaren erreferentzia planoak, gorputz anatomia atal espezifikoetan banatzeko eta deskribatzeko erabiltzen diren erreferentzia imaginarioak dira. 2-22. irudian gorputzaren erreferentzia planoak ikus daitezke.



*Iturria: Norberak egindakoa, [27] informazioa egokituz.*


2-22. irudia. Giza gorputzaren erreferentzia planoak.

- a) **Plano sagitala:** plano honek gorputza bi zatitan banatzen du, ezkerre eta eskuina. Plano sagitalak gorputza bi zati berdinetan banatzen duenean, "plano sagital ertaina" edo "erdiko plano sagitala" esaten zaio.
- b) **Plano frontala edo koronala:** plano honek, gorputza aurreko eta atzeko zatietan banatzen du. Horrek gorputzaren aurrez aurreko ikuspegia sortzen du.



- c) **Plano horizontala edo zeharkakoa:** plano honek gorputza goiko eta beheko zatietan banatzen du, eta aurreko bi planoekiko perpendikularra da.

Erreferentzia plano berdin horiek gizakien beheko masail hezurrera eramanda adieraz daitezke (2-23. irudia) [24].



*Iturria: Norberak egindakoa, [43] informazioa egokituz.*

**2-23. irudia.** Giza gorputzaren erreferentzia planoak.

Giza gorputzaren planoak izateaz gain, badaude odontologiarako espezifikagoak diren eta gizakien buruan definitu daitezkeen plano imajinario batzuk ere (2-24. irudia) [44].


- a) **Frankfurt plano:** begi zuloen beheko ertzaren punturik baxuenetik, kanpoko entzumen hodian punturik altueneraino igarotzen den plano zelaformetrikoa da. Giza gorputzaren plano horizontalarekiko paraleloa dela kontsideratzen da.
- b) **Camper plano:** sudur hegaldaren beheko ertzetik, kanpoko entzumen hodian punturik baxueneraino igarotzen den plano da. Nahiz eta gizabanako bakoitzean

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

zerbait aldatu daitekeen, Camper planoaren eta Frankfurt planoaren arteko inklinazio angelua 15 gradu ingurukoa izaten da.

- c) **Oklusio plano**a: barailaren aurrealdeko ebakortzen goi ertzetatik, atzeko molarren kuspideetara doan plano imajinarioa da. Hurbilketa bat eginez, hortzen arteko kontaktu puntuak plano imajinario honetatik oso gertu geratzen direla kontsidera daiteke. Hortz errestaurazio osoak edo oso handiak egin behar direnean, oklusio plano a eta Camper plano a paraleloak direla kontsideratuz egiten da [45].




*Iturria: Norberak egindakoa, [35] informazioa egokituz.*

**2-24. irudia.** Odontologiako erreferentzia planoak.

## 2.4 ARTIKULADOREAK

### 2.4.1 ARTIKULADOREAREN FUNTZIOA ETA OSAGIAIK

Artikuladore mekanikoak, hortz oklusioan, goiko eta beheko hortzerien artean ematen diren mugimenduak simulatzeko eta aztertzeke erabiltzen diren gailuak dira. Tresna hauek hortz protesiak eta ortodontzia bezalako tratamenduak planifikatzeko eta gauzatzeko funtsezkoak dira (2-25. irudia). Artikuladore mekanikoak, artikulazio tenporomandibularra, masailezurra eta baraila ordeztu, horretarako masailezurreko eta barailako hortzerien igeltsuzko erreplikak finkatzeko osagai finko eta mugikor batzuk ditu, eta osagai horien arteko lotura motaren arabera, mugimenduen simulazio zehatzagoak edo sinpleagoak lor daitezke.




*Iturria: Norberak egindakoa [46] egokituz.*

**2-25. irudia.** Artikuladore mekanikoaren osagai nagusiak.

Urteetan zehar, anatomiaren, barailaren mugimenduen eta printzipio mekanikoen inguruko ezagutza areagotu ahala, egitura eta funtzionamendu printzipio

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

desberdineko artikuladore mekanikoak garatu dira. Hala ere, funtzionamendu printzipio desberdina izan arren, gaur egun erabili ohi diren artikuladore mekaniko gehienek antzeko egitura orokorra dute (2-26. irudia). Masailezurra ordeztzen duen goiko osagai mugikor bat eta baraila ordeztzen duen beste beheko osagai finko bat daude, eta bi osagai horiek artikulazioa tenporomandibularra ordeztzen duen kondilo gida bidez lotuta daude. Gainera, goiko eta beheko osagaien artean ezarritako tarte bertikala mantentzeko, beheko osagaiari lotutako mahai batekin (aurreko gida mahaia deiturikoa) kontaktatzen duen, goiko osagaiari lotutako hagaxka bat (aurreko gida orratza deiturikoa) dute. Horrela, artikuladore mekanikoen goiko eta beheko osagaien arteko mugimendua, kondilo gidek eta aurreko gida orratzak eta gida mahaiek gidatzen dute.




Iturria: Norberak egindakoa [47]-ko irudia egokituz.

**2-26. irudia.** Artikuladore mekanikoaren egitura orokorra.

Artikuladore mekanikoak, paziente bakoitzaren barailaren mugimendu indibidualak simulatzeko, programatu edo doitu egiten dira. Artikuladore mekanikoak simulatutako barailaren mugimenduen eta pazientearen barailaren mugimendu indibidualen arteko adostasun gradua zenbat eta handiagoa izan, printzipioz haren

laguntzarekin garatutako hortz protesiak orduan eta hobeto egokitzen dira. Eta ondorioz, odontologoek hortz protesia ahoan kokatzeko momentuan, doikuntza gutxiago egin behar izaten dituzte [41, 48–52].

Giza ahoaren mugimenduetan, goi hortzeria geldirik eta behe hortzeria mugimenduan egoten da, baina artikuladorearen erreproduzio mugimenduetan justu alderantzikoa da. Hala ere, teorian bi kasuetan goiko eta beheko hortzerien arteko mugimendu erlatiboa berdina izango da (2-27. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa [47]-ko irudia egokituz.*


**2-27. irudia.** Artikuladore mekanikoaren mugimendu erlatiboa.

### 2.4.2 ARTIKULADORE MOTAK ETA SAILKAPENA

1805. urtean, Jean Baptiste Garriot zientzialariak artikuladoreen historiari hasiera eman zion [53, 54], eta haren atzetik, hainbat zientzialari ezberdinek, beraien ikerkuntza eta mekanismo propioekin, artikuladorearen kontzeptua garatzen joan dira [55–58].

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA


---



*Iturria: Norberak egindakoa [46] egokituz.*

**2-28. irudia.** Ezagutzen den historiako lehen artikuladore mekanikoa.

Artikuladore mekanikoen kontzeptualizazioan bi oinarritzko diseinu bereiz daitezke, Arcon eta ez-Arcon motak (2-29. irudia). Arcon artikuladore motan kondiloak simulatzen dituen elementuak beheko osagaian kokatuta daude eta goiko osagaian garezurraren hobi glenoideak simulatzeko elementuak kokatzen dira. Ez-Arcon diren artikuladore mekanikoen kasuan alderantziz da, kondiloak goiko osagaian eta hobi glenoideak beheko osagaian kokatzen dira.



*Iturria: Norberak egindakoa [46] egokituz.*

**2-29. irudia.** A; Arcon motako artikuladorea, B; ez-Arcon motako artikuladorea.

Arcon eta ez-Arcon artikuladoreen arteko desberdintasun estatiko eta zinematikoak aztertu diren zenbait ikerkuntzetan ondorioztatzen denez [59, 60], nahiz eta teoriarik bere geometriaren antzekotasunagatik, Arcon artikuladoreek simulazio mekaniko zehatzagoa lortu, praktika klinikoan desberdintasunik ez da nabaritzen.

“Journal Of Prosthetic Dentistry” aldizkariak, 1999 urtean, artikuladore mekanikoen sailkapen bat argitaratu zuen, eta hauek lau motatan banatu zituen [61].

### I. mota: artikuladore ez doigarriak

Erregistro bakarra onartzeko gai den joera sinpleko tresna da, eta bakarrik mugimendu bertikala egin dezake. Instrumentu ekonomikoak dira, eta giltzadura artikuladorea edo artikuladore sinpleak ere deitzen zaie (2-30. irudia).



*Iturria: Fabrikatzailearen katalogotik hartuta.*

**2-30. irudia.** Technoflux markako artikuladorea.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

### II. mota: batezbesteko balioak dituen artikuladorea

Mugimendu horizontala eta bertikala ahalbidetzen duen tresna da, baina ez du artikulazio tenporomandibularren mugimendua orientatzeko gaitasunik (2-31. irudia), eta gizakien neurri biologikoen batezbestekoak hartuta diseinatzen dira kondiloen mugimenduak.



*Iturria: Fabrikatzailearen katalogotik hartuta.*

**2-31. irudia.** Mestra markako artikuladorea.

### III. mota: artikuladore erdi-doigarriak

Kondiloen ibilbidea simulatzen duen gailua. Mugimendu osorako edo mugimendu batzuetarako, giza banakoen anatomiaren datu zehatz partikularrak erabili ordez, batezbesteko balio batzuk erabiltzen ditu (2-32. irudia).





*Iturria: Fabrikatzailearen katalogotik hartuta.*

**2-32. irudia.** Artex markako artikuladorea.

IV. mota: artikuladore guztiz doigarriak

Hiru dimentsioko erregistroak onartzen dituen tresna da. Tresna hauetan, edozein gizabanakoren artikulazio tenporomandibularra simulatu daiteke, horretarako gizabanako horren anatomiaren datu geometriko zehatzak erabiliz (2-33. irudia).



*Iturria: Fabrikatzailearen katalogotik hartuta.*

**2-33. irudia.** Panadent markako artikuladorea.

### 2.4.3 PAZIENTEEN ERREGISTROAK ETA ARTIKULADOREAREN PRESTAKUNTZA

Paziente bakoitzaren hortzerien erreplika eta beraien arteko oklusioaren ezaugarriak artikuladore mekanikoetara transferitzeko, estandarizatuko zenbait pauso jarraitu behar dira (2-34. irudia). Horretarako, artikuladore mekaniko motaren arabera prozedura desberdinak erabiltzen diren arren, oro har, honako urrats hauek jarraitzen dira [41, 49, 50].



Iturria: Iturria: Norberak egindakoa [14] egokituz.


2-34. irudia. Artikuladorearen muntaketa egiteko jarraitu beharreko urratsak.

1. Pazientearen aho tamainara egokitutako urkila estandar bat aukeratu eta gogortze denbora laburra behar duten silikona baten laguntzaz goiko eta beheko hortz uztaien aurreneko inpresio bat hartzen da.
2. Lehenengo urratsean hartutako inpresioan, hortzerien igeltsuzko aurreneko erreplika bat sortzen da, eta igeltsuzko erreplika hauek erabilia, pazientearen hortz neurritara hobeto egokitutako urkila pertsonalizatu bat sortzen da.
3. Urkila pertsonalizatua, eta kalitatezko silikona bat erabilia, pazientearen behin betiko hortz uztaien inpresio berri bat hartzen da.
4. Masailezurreko eta barailako hortz uztaien artean kokaturiko hozkada erregistroak hartzeko material baten bidez, ahoa itxi eta baraila interkuspidozko maximoko posiziora eramaten da, horrela kokapen horretako bi hortz uztaien arteko posizio erlatiboa erregistro materialean erregistratuta geratzen da.
5. Hirugarren pausoan sortutako hortz uztaien inpresioekin, kalitate handiagoa eta gogortasun maila kontrolatua duten igeltsuzko modelo behin betikoak lortzen dira. Igeltsuzko modelo behin betiko hauek, hortzen geometriak xehetasun handiz erreplikatzeko dituzte.
6. Arku fazial izeneko instrumentu mekaniko bat erabiliz, masailezurreko hortz uztaiak, erreferentzia puntu anatomiko batekiko edo batzuekiko duen erlazio espaziala hartzen da. Transferentzia mahaia izeneko beste instrumentu bat erabiliz, masailezurreko hortz uztaiaren igeltsuzko modeloa, arku fazialak erregistratu duen erlazio espazial berdina mantenduz, artikuladore mekanikoaren goiko zatian finkatzen da.
7. Azkenik, laugarren pausoan erregistratutako hozkada erregistroak erabiliz, barailaren igeltsuzko hortz uztaiaren masailezurraren igeltsuzko hortz uztaiarekiko kokatu eta artikuladorearen beheko zatira finkatzen da.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---


Merkatuan existitzen diren arku fazial gehientsuenetan, artikuladorearen goiko osagaiaren plano horizontala, pazientearen Frankfurt plano zefalometrikoarekin bat etorriko den muntaia egiten da (2-35. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa [25] egokituz.*

**2-35. irudia.** Artikuladorearen goiko osagaiaren plano eta Frankfurt plano bat datoz.

Artikuladorearen goiko osagaiaren plano horizontala, pazientearen Camper planoarekin bat egitea nahi bada, horretarako bereziki diseinatutako arku fazialak erabili behar dira (2-36. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa [25] egokituz.*

**2-36. irudia.** Camper plano pazientean eta artikuladorean.

## 2.5 OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALAK

### 2.5.1 SARRERA

Oklusio indarraren ikerketak historia luzea du, 1681. urtean, Borellik gnatodinamometro bat diseinatu eta murtxikatze indarrak aztertu zituen [62]. Ondoren, hainbat ikertzaileek gailuak garatzen jarraitu zuten, eta gaur egun, oklusioko kontaktu indarrak neurtzeko gailu elektronikoak erabili daitezke.

Gailu hauek, konprimatuz energia elektriko sortzeko gaitasuna duten sentsoareak erabiltzen dituzte. Sortutako energia elektriko hori kuantifikagarria denez, neurtua izan den energia eta aplikatua izan den indarrean arteko baliokidetasun erlazio bat aplikatuz, oklusioan egon den indar mekaniko maila jakin daiteke.

Gailu hauek sentsoarearen izaeraren arabera sailkatu daitezke [63], eta ondorengo zerrendak sentso izaera desberdinekin fabrikatutako gailuak sailkatzen ditu [64].

Deformazio neurgailu transduktorea duten gailuak:

- Dentoforce 2 (ITLAB, Suedia)
- IDDK (Kratos, Brasil) (2-37. irudia)



*Iturria: [65] erreferentziatik hartutako irudia.*


**2-37. irudia.** 100 kgf-ko gaitasuna duen IDDK dinamometro digitala.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

### Transduttore piezoerresistiboa duten gailuak:

- FSR 151 (Interlink Electronics Inc., Amerikako Estatu Batuak) (2-38. irudia)



Iturria: [66] erreferentzietatik hartutako irudia.

**2-38. irudia.** FSR 151 sentsoareekin eginiko indar neurketa.

- Flexiforce (Tekscan, Amerikako Estatu Batuak) (2-39. irudia)




Iturria: [67] erreferentzietatik hartutako irudia.

**2-39. irudia.** Flexiforce sentsoareekin eginiko indar neurketa.

Indar transduktorea duten gailuak:

- GM10 (Nagano Keiki, Japonia) (2-40. irudia)




Iturria: [68] eta [69] erreferentziatik hartutako irudiak.

**2-40. irudia.** GM10 indar transduktorearekin eginiko indar neurketa.

Presio sentikor filma duten gailuak:

- Dental Prescale (Fuji Film, Tokio, Japonia) (2-41. irudia)



Iturria: [70] erreferentziatik hartutako irudiak.

**2-41. irudia.** Dental Prescale presio sentikor filmarekin eginiko presio neurketa.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA


---

### Transduttore piezoelektrikoa duten gailuak:

- T-Scan (Tekscan, Inc., Hego Boston, Amerikako Estatu Batuak)
- OccluSense (Dr. Jean Bausch GmbH & Co., Alemania)
- Accura (Dmetec, Bucheon, Hego Korea)

Hortz kliniketan sortu daitezkeen beharretarako, erabilera errazena eta osoena eskaintzen dutenak, transduttore piezoelektrikoa duten neurketa gailuak dira. Transduttore piezoelektrikoa erabiliz, oklusio indarrak neurtzen dituzten gailuei “oklusio analizatzaile digitalak” deitu zaie eta zenbait enpresek gailu hauek hortz kliniketako merkatuan komertzializatzeko apustu garbia egin dute. Ondorengo 2-42. irudian, 2-43. irudian eta 2-44. irudian, oklusio analizatzaile digital hauen fabrikatzaileak beraien web orrietan eskaintzen duten informazio ikus daiteke.

a) **T-Scan sistema** (2-42. irudia): (<https://www.tekscan.com/products-solutions/systems/t-scan-novus>)



*Iturria: Norberak egindakoa, [71] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*

**2-42. irudia.** T-Scan sistema. A, T Scan dispositiboa eta sentsorea. B, paziente bati hartutako erregistroa. C, software programa.




b) **OccluSense sistema** (2-43. irudia): (<https://es.occlusense.com/>)



*Iturria: Norberak egindakoa, [72] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*  
**2-43. irudia.** OccluSense sistema. A, OccluSense dispositiboa eta bere sentsorea. B, paziente bati hartutako erregistroa. C, software programa.

c) **Accura sistema** (2-44. irudia): ([http://www.dmetec.com/e\\_index.php](http://www.dmetec.com/e_index.php))



*Iturria: Norberak egindakoa, [73] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*  
**2-44. irudia.** Accura sistema; Accura dispositiboa eta bere sentsorea, software programa.

### 2.5.2 T-SCAN OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALA

T-Scan sistema, 1984. urtean sortu zen, eta ordutik, garapen eta hobekuntza nabarmena izan du. Hardware edo eskuko piezaren azken bertsioak T-Scan Novus izena du, v10 bertsioa duen software programa propioa du eta bi tamainako (“small” eta “large”) sentsore piezoelektikoak erabili ditzake (2-45. irudia).




*Iturria: Norberak egindakoa, [71] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*

**2-45. irudia.** T-Scan Novus sistema osatzen duten 3 elementu nagusiak: eskuko pieza, sentsorea eta software programa propioa.

Sistema honi esker, oklusioa edo hozkada ematen den denbora tartean, hartz antagonisten artean ematen diren kontaktu puntuak eta horietan sortzen diren indarrak neurtu ditzakete odontologoek. Denboran zehar neurtutako kontaktu puntu eta indar guztiak, gertatzen ari diren une errealean ikusteaz gain, pazientearen fitxan grabatuta geratzen dira. Ondoren, grabatutako datu sekuentzia guztiak behin eta berriro ikusi eta aztertu daitezke, eta gainera, tratamendu kliniko bat ematen den bitartean, egun desberdinetan egin diren oklusioaren neurketak konparatzeko erraztasunak eta baliabideak eskaintzen ditu.

### a) HD T-Scan Novus sentsoare piezoelektrikoa

Sentsorea poliester materialeko bi kapa meherekin dago osatuta, eta hauen tartean material piezoelektrikoa kokatzen da, ilara eta zutabetan antolatuta. Ilara eta zutabeen intersekzioetan, 1,27 mm-tako aldea duten karratutxoak definitzen dira eta hauei "sensenl" izena eman zaie (2-46. irudia). "Sensenl" bakoitzak 0,97 mm-tako aldea duen azalera efektiboko karratuak ditu, eta karratu efektiboetatik kanpora ezartzen den presioa edo indarra, detektatu gabe geratzen da.



*Iturria: Norberak egindakoa, [74] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*

#### 2-46. irudia. T-Scan Novus sentsoaren neurriak eta "sensenl".

Hauetako "sensenl" bakoitza, indarra neurtua izan daitekeen azaleraren unitate minimoa da. Sensenlak jasotzen duen konpresio indarraren intentsitatearen arabera, deformatu egiten da eta deformazioaren adinako seinale elektriko bat sortzen du voltiotan.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA


Seinaleak elektronikoi irakurri eta voltio mailaren arabera, informazio hori datu numeriko batera pasa eta software programan grabatuta geratzen da. Sortzen duen seinale elektrikoak, 256 intentsitate maila izan ditzake, eta denboran zehar, 333 indar-datu segundoko irakurri ditzake. 2-1. taulan, T-Scan Novus eskuko piezarekin bateragarriak diren, bi sentsore tamainen neurriak eta ezaugarriak adierazten dira.

HD T-SCAN NOVUS SENTSOREA	<b>“LARGE” SENTSOREA</b> <small>T-Scan™ Novus™ - Large Sensor</small> 	<b>“SMALL” SENTSOREA</b> <small>T-Scan™ Novus™ - Small Sensor</small> 
	Lodiera	0,102 mm
Luzera totala	130,2 mm	124,3 mm
Zabalera totala	73,7 mm	66,5 mm
Matrize luzera	55,9 mm	50,8 mm
Matrize zabalera	66,0 mm	58,4 mm
Zutabe zabalera efektiboa	0,97 mm	0,97 mm
Errenka luzera efektiboa	0,97 mm	0,97 mm
Sensel kopurua	1.370	1.122
Sensel arteko distantzia	1,27 mm	1,27 mm
Sensel erresoluzioa	62 sensel/ cm <sup>2</sup>	62 sensel/ cm <sup>2</sup>

2-1. taula. T-Scan Novus sentsorearen ezaugarri teknikoak.

### b) T-Scan v10 software programa

Windows-ekin bateragarria den programa propio batekin, sentsoreen senseletan eskuko piezak jasotako seinale elektriko guztiak datu modura bihurtu eta ordenagailuaren pantailan denbora errealean bistaratzen ditu, adibidez, 2-47. irudian bi oklusio jarraian grabatu dira eta une jakin bateko kontaktu puntuak eta indar intentsitateak azaltzen dira.



*Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabilia.*


**2-47. irudia.** T-Scan programak eskaintzen duen pantaila nagusia.

Horretaz gain, paziente guztiekin sortutako datu base batean, denbora tarte jakin batean jaso diren datu guztiak grabatu eta gorde ditzake. Fabrikatzaileak programaren inguruan azpimarratzen dituen ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

1. Paziente bakoitzaren goiko eta beheko hortz uztaiak pazientearen neurri errealetara egokitu daitezke, eta nahi bada, pazienteari eginiko hortz eskaneaketa

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA


digitalak (STL formatua duten fitxategiak) ere inportatu daitezke. Prozedura honekin, senseletan grabatutako kontaktu puntuak eta bere indarren intentsitateak, hartz uztaia errealaren gainean proiektatu ahal izango dira (2-48. irudia). Hala ere, kokapen hori hurbilketa bat da, ez baitago STL-a kontaktu puntuekin lerrokatzeko modu zehatzik.



Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabiltuta.

**2-48. irudia.** Eskaneatutako STL artxiboa inportatu eta hartz neurri errealak.


2. Inplanteak baldin badaude, beraien hausturak ekiditeko, onargarria diren karga maximoko oharrak jar daitezke (2-49. irudia).



Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabiltuta.

**2-49. irudia.** Inplanteak dauden tokietan jarritako oharrak.

3. Erdiko plano sagitalarekiko, kontaktu indarren ezker-eskuin oreka kalkulatu, eta hortz uztaien koadrante bakoitzean dagoen indarraren ehunekoa kalkulatu eta erakuts daiteke (2-50. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabilia.*

**2-50. irudia.** Ezker-eskuin oreka, zentroaren ibilbidea, denbora barra.

4. Indar maximoko aldiuneak eta interkuspido maximo posizioa lortzen den aldiunea aurkitzeko prozesu automatiko bat eskaintzen du.
5. Kontakto indarren aplikazio zentroa kalkulatu eta oklusioa ematen den denboran zehar bere ibilbidea marraztu dezake (2-50. irudia).
6. Denbora barra bat ere azaltzen da. Barran aurrera eta atzera eginaz, edozein aldiunetan jaso diren indar balioak eta grafikoak ikusi ahal dira (2-50. irudia).
7. Egun edo momentu desberdinetan eginiko oklusioaren grabaketak, pantaila berdinean batera erakutsi eta konparatzeko gaitasuna du.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

8. Senseletan denboran zehar grabatutako indar datu guztiak, Excel artxibo batera esportatu daitezke. Horrela, ikerketa kliniko sakonagoak egin ahal izateko aukera ematen du.

### 2.5.3 OCCLUSENSE OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALA

Occlusense sistema 2018. urtean sortu zen, eta ateratako produktuaren aurreneko bertsioak, gaur egun oraindik indarrean jarraitzen du. Occlusense sistemak, kablerik gabeko eskuko pieza du, Apple markako Ipad gailuetan bakarrik instalatu daitekeen software programa propio batekin dabil eta bi tamaina dituen (“large” eta “extra large”) sentsore piezoelektrokoak erabili ditzake (2-51. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa, gailuaren katalogotik hartutako irudiak erabiltuta.*


**2-51. irudia.** OccluSense sistema osatzen duten 3 elementu nagusiak: eskuko pieza, sentsorea eta software programa propioa.

Sistema honekin ere, odontologoek oklusioa ematen den denbora tartean hortzetan ematen diren kontaktu puntuak eta horietan sortzen diren indarrak neurtu ditzakete. Datuak pazientearen fitxan grabatuta geratzen dira, eta ondoren, grabatutako datu sekuentzia guztiak behin eta berriro ikusi eta aztertu daitezke. Tratamendu kliniko



batean egin diren oklusioaren neurketa desberdinak konparatzeko erraztasunak eta baliabideak ere eskaintzen ditu.

OccluSense sistemak eskaintzen duen abantaila nagusietako bat, sentsorea, paper artikulatuak bezala, tintaz estalita dagoela da. Horrela, hortzen kontaktu puntuetan markak uzten ditu (2-52. irudia), eta markatutako puntu horiek pantailan ikusten diren datu eta grafikoekin erlazionatu daitezke.



*Iturria: Norberak egindakoa, gailuaren katalogotik hartutako irudiak erabilia.*

**2-52. irudia.** Occlusense sentsoreak hortz kontaktu puntuetan utzitako markak.



OccluSense sistemak pantailan eskaintzen duen informazio grafikoa nahiko osoa izan arren, eskaintzen duen informazio numerikoa askoz murriztagoa da. Horretaz gain, datuak ezin direnez Excel orrietara esportatu, analisi kuantitatiboak egiteko ez dago aukera handiegirik.

### a) OccluSense sentsore piezoelektrikoa

T-Scan Novus sentsorearen antzera, bi kapa tartetan sarturiko zutabe eta ilaraz osaturiko matrize bat du. Ilara eta zutabeen intersekzioetan 1,5 mm aldea duten karratutxoak definitzen dira, eta hauetan 256 mailetan neurtu daitezkeen indarrak

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA


detektatzen ditu. Sentsorea bi tamainakoa erosi daiteke, jarraian bi sentsore hauen informazio teknikoak 2-2. taulan adierazten da. OccluSense sentsorearen kasuan, fabrikatzaileak ez du sensel bakoitzaren azalera efektiboa zenbat den adierazten.

OCCLUSENSE SENTSOREA	L SENTSOREA	XL SENTSOREA
		
Lodiera	0,06 mm	0,06 mm
Luzera totala	115 mm	115 mm
Zabalera totala	71 mm	77 mm
Matrize luzera	58,5 mm	58,5 mm
Matrize zabalera	63,0 mm	69,0 mm
Zutabe zabalera efektiboa	Ez da ezaguna	Ez da ezaguna
Errenka luzera efektiboa	Ez da ezaguna	Ez da ezaguna
Sensel arteko distantzia	1,5 mm	1,5 mm
Sensel erresoluzioa	44,45 sensel/ cm <sup>2</sup>	44,45 sensel/ cm <sup>2</sup>

**2-2. taula.** OccluSense sentsorearen ezaugarri teknikoak.

### b) OccluSense software programa

Programaren aurreko bertsioa gaur egun indarrean jarraitzen da. T-Scan sistemak duen programarekin alderatuta, informazio numeriko gutxiago ematen du (2-53. irudia). Ezker eskuin indarren orekak ez ditu kalkulatu eta kontaktu indarren zentroaren posizioaren kalkulurik ez du egiten.



*Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabiltza.*

**2-53. irudia.** OccluSense programak eskaintzen duen pantaila nagusia.

#### 2.5.4 T-SCAN ETA OCCLUSENSE ANALIZATZAILEEN KONPARAZIO TAULA

T-Scan sistemak merkatuan urte asko daramatza, eta komunitate zientifikoan bere erabilera teknikoari eta klinikoari buruzko informazio independentea badago eskuragarri. OccluSense sistema askoz berriagoa izanik, apenas dago informazio

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

independenterik. Eta orain arte dagoen informazio gehiena, bere fabrikatzaileak eskaintzen duen informazioa, eta baita zenbait erabiltzaileek eginiko iruzkinetan agertzen dena da. Sutter odontologo amerikarrak argitaratu duen bi sistemen arteko erabilera klinikoari buruzko konparaketa da hain zuzen, gaur egun OccluSense gailuari buruz komunitate zientifikoan argitaratu den bakarra [75]. Konparaketa honen alderdi nagusienak, ondorengo 2-3. taulan ikusi daitezkeenak dira.

<b>ZEHAZTASUNA</b>	<b>T-SCAN</b>	<b>OCCLUSENSE</b>
Sistemaren balioztatze estudioak	Badaude	Ez daude
Sentsorearen zehaztasun estudioak	Badaude	Ez daude
Denbora txostenen zehaztasun estudioak	Badaude	Ez daude
Indarra kuantifikatzeko errepikakortasun estudioak	Badaude	Ez daude
<b>PREZIOAK</b>	<b>T-SCAN</b>	<b>OCCLUSENSE</b>
Sistema berriaren prezioa	12.000 euro	1.200 euro
Sentsoreen prezioa	13 euro/uni	13 euro/uni
Sentsoreen bizitza	24 oklusio	1 saio kliniko
<b>GRABAZIO GAITASUNAK</b>	<b>T-SCAN</b>	<b>OCCLUSENSE</b>
Ordenagailu pantailan ikusi eta grabazioa batera egin daiteke?	Bai	Ez
Sentsorearen indarrarekiko saturazioa kontrolatu daiteke?	Bai	Ez
Pazientearen hortz uztaiak doitu daitezke?	Bai	Ez
Sentsorearen grabazio maiztasuna:	333 frame/s	150 frame/s
Hortzak margotuz kontaktuak detektatzeko gaitasuna?	Ez	Bai
<b>KONTAKTU INDAR ERLATIBOAK KUANTIFIKATZEKO GAITASUNA</b>	<b>T-SCAN</b>	<b>OCCLUSENSE</b>
Indarren zentroa kalkulatu dezake?	Bai	Ez
Indar magnitudea adierazteko maila kopurua?	256	256
Indarra- denbora grafikoak badaude?	Bai	Ez
Indar ehunekoak hortz pieza bakoitzeko eman dezake?	Bai	Bai
Ezker eskuin orekaren ehunekoak eman dezake?	Bai	Ez
Indar ehunekoak koadrante bakoitzeko eman dezake?	Bai	Ez
Indarren bi eta hiru dimentsioetako grafikoak baditu?	Bai	Bai
Indar gradiente handiak detekta eta azal ditzake?	Ez	Bai

**2-3. taula.** T-Scan eta OccluSense sistemen arteko prestazio konparaketa.

Laburbilduz, OccluSense analizatzaileak berrikuntzak dituela esan daiteke; hortzak tintatzeko gaitasuna eta indar gradientek adierazten baititzake, eta batez ere, bere abantaila 10 aldiz merkeagoa dela da. Baina kontrari, T-Scan-ak programa garatuago du, eta kuantifikagarriak den informazio askoz gehiago eskaintzen ditu. Gainera, OccluSenseren erabilera klinikoari buruzko eta zehaztasunari buruzko informazioa ez dago, hala ere softwareak ematen duen informazioa gehiago garatzen bada, gailu bezala potentziala baduela esan daiteke.

## 2.6 ANALIZATZAILE DIGITALEI BURUZKO GAIAREN EGOERA

### 2.6.1 OKLUSIOA ANALIZATZEKO METODO TRADIZIONALAK ETA DIGITALEN GARAPENA

“Glossary of Prosthodontics terms”-ean [48] “oklusio erregistroa”-ren definizioa ematen da: hortz uztai antagonisten posizioa eta kontaktuak erregistratzeko prozedura da. Odontologian, oklusioaren datu adierazgarriak ikusteaz gain, informazio hori erregistratu, gorde eta transferitu ahal izatea garrantzitsua da [76]. Betidanik, material ezberdinak erabili izan dira oklusioa erregistratu eta aztertzeko [77]: argizariak, alginatoak, silikonak, paper tintatuak, aluminio lamina meheak, zeta orriak, besteak beste.

Hauetako batzuk hortz uztaien formak erreplikatzeko (2-54. irudia), argizariak edo silikonak adibidez, eta beste batzuk kontaktu puntuak margotzen dituzte hortzetan. Hauek lodiera desberdineko paper moduko zintatan goiko eta beheko hortzeria artean jarri eta oklusioa egitean hortzen arteko kontaktu puntuak margotzen dituzte (2-55. irudia), horrela oklusioari buruzko informazioa jasoz [78].



*Iturria: Produktuen katalogoetatik hartutako argazkiak.*

**2-54. irudia.** Silikonak hortzaren forma erreplikatzeko du.



*Iturria: Produktuen katalogoetatik hartutako argazkiak.*

**2-55. irudia.** Paper artikulatuek hortzak margotuz oklusio puntuak detektatzen dituzte.

Paper artikulatua erabiliaz, kontaktuaren kokapena eta kontaktua egon den azalera eremua markatzen da. Odontologoaren artean, markaren tamaina hortzetako kontaktu indarren adierazle gisa oso onartuta dago, baina ikerketa batzuk indarren magnitudea zehazteko modu hau ez dela fidagarria ondorioztatu izan dute [79–82].

Oklusio analizatzaile digitala izeneko sistemek, oklusioa gertatzen ari den bitartean, kontaktu puntuak detektatzeaz gain, kontaktu puntu horietan dagoen indar erlatiboa neurtu dezakete [83–86]. Denbora errealean jasotako informazio guztia, informatikoki tratatu eta gorde dezakete. Gero, edozein momentutan, oklusioaren analisi sakonagoak egin nahi badira, gordetako informazioa nahi denean erreproduzitu daiteke [87].

Merkaturatzen aurreneko izan zen oklusio analizatzaile digitala, eta gehien aztertu den gailuak (T-Scan; Tekscan Inc), gaur egun indarrak neurtzeko, definizio altuko “HD” sentsoreak ditu. Sentsoreak  $1,27 \times 1,27 \text{ mm}^2$ -ko azalera unitate minimoa du, eta oinarrizko azalera unitate hau sensel bezala izendatua izan da [88]. 1985 urtetik, ikertzaile askok T-Scan-aren bertsio desberdinak aztertu dituzte, eta klinikoki balioztatu dute [88–90]. Hauei esker, fabrikatzaileak hardwarea, softwarea eta sistemaren erregistro sentsoreak hobetu ahal izan ditu.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---


Zentzu honetan, bereziki esanguratsua da sentzore piezoelektrikoak izan duen garapena [90]. Ondorengo 2-4. taulan eboluzio horretan egon diren zenbait parametroren hobekuntzak adierazten dira.

Bertsioa (urtea)	Indar intentsitate mailak	Neurketaren frekuentzia (s/neurketa)	Aurreko bertsioarekiko hobekuntza
G-1 sentzorea (1984 urtea)	16	0,01	
G-2 Sentzorea (1992 urtea)	16	0,01	Denbora neurketa eta kontaktuen detekzio fidagarriagoa.
G-3 Sentzorea (1998 urtea)	256	0,01	Sentsorearen materiala, eta indarrak neurtzeko sentsibilitate hobea.
HD Sentzorea (2002 urtea)	256	0,003	Senselaren azalera efektiboa handiagoa eta kontaktu puntuen kokapenak detektatzeko fidagarriagoa.

**2-4. taula.** T-Scan sentzorearen eboluzioa.

Ondorengo 2-56. irudian, G3 eta HD sentzoreen arteko azalera efektiboaren hobekuntza ikus daiteke. G3 sentzorean sensel bakoitzak  $0,76 \times 0,76 \text{ mm}^2$ -ko azalera efektiboa zuen eta gaur egungo HD sentzorean  $0,97 \times 0,97 \text{ mm}^2$ -ko azalera izatera pasa zen [90].





Iturria: Ikerkuntza artikulua [90].

**2-56. irudia.** T-Scan HD sentsorearen azalera efektiboaren hobekuntza.

Senselaren azalera efektiboa %33 handitu zen eta azalera ez efektiboa %50 gutxitu, honen ondorioz Kerstein odontologo ikertzaileak baldintza berdinetan egin zituen in-vitro oklusio saiakuntzetan, HD sentsoreak bere datuen errepikakortasun hobea zuela ondorioztatu zuen [90].

Orokorrean ikerketa inguruneetan erregistro metodologia onartua eta fidagarria kontsideratzen da eta T-Scan sistemarekin behin betiko tratamendu protokoloak garatu eta probatu dira [91–95].

Duela urte gutxi, kostu txikiagoa eta antzeko eta funtzionalitateak dituzten beste oklusio analizatzaile digital batzuk garatu eta merkaturatu dira, hala nola, Accura (Dmetec Co) [20] eta OccluSense (Dr. Jean Bausch GmbH & Co KG) [75]. OccluSense gailuak berrikuntza garrantzitsu bat dakar; gailuaren sentsorea paper artikulatuak daraman tinta berdinez estalita dago, eta hortzetako oklusio kontaktuak hortzetan markatuta uzten ditu. Hala ere, tesi honetako artikulua argitaratu aurretik, ez dago OccluSense gailuaren erabilera klinikoari buruzko eta bere neurrien zehaztasunari buruzko JCR-ek sailkatutako aldizkarietan argitaratutako ikerketarik [75].

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

Oklusio analizatzaile digitalen erabilera eremua zabala izan arren, bere erabilera odontologoaren artean ez da gehiegi zabaldtu. Oklusio ebaluatzeneko sistemen erabilera tasari buruzko inkesta baten emaitzak ondorengo 2-57. irudian erakusten dira [96]. Inkesta hau, 2021 urtean Bulgariako 228 hortz kliniketan eginiko inkesta da. Argi ikus daiteke hortzak markatzen dituzten paper artikulatuek (200 µm edo 100 µm), zeta artikulatuek (80 µm edo 40 µm), eta orri artikulatuek (12 µm edo 8 µm), T-Scan eta OccluSense analizatzaile digitalak baina erabilera tasa askoz altuagoa dutela.




FIGURE 3: Occlusal indicators used in practice.


*Iturria: Ikerkuntza artikulua [96].*

**2-57. irudia.** Oklusioa ebaluatzeneko sistemen erabilera tasa.

### 2.6.2 ANALIZATZAILEEN INDARREN NEURKETA ALDAGAIAK


Oklusio analizatzaile digitalek, euren software programa bidez (2-58. irudia), neurtutako datuak prozesatzen dituzte eta sensel bakoitzean dagoen indararen intentsitateari buruzko informazio grafiko kualitatiboa eta kuantitatiboa ematen dute [84, 97].

T-Scanaren kasuan, sensel bakoitzari dagokion barraren altuerak eta koloreak informazio berdina edo baliokidea ematen du (2-58. irudia), baina Occlusense gailuaren kasuan ez da informazioa guztiz berdina (2-59. irudia).



Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsio T-Scan programatik hartutako pantaila erabilia.

2-58. irudia. Sensel bakoitzean dagoen indar intentsitatea kolore eskalan adierazita.




**Koloreak: indar aldaketa**

Iturria: Norberak egindakoa. OccluSense programatik hartutako pantaila erabilia.

2-59. irudia. Sensel bakoitzean dagoen indar aldaketa eta intentsitatea.

OccluSense gailuan barraren altuerak indar intentsitatea adierazten du eta koloreak aldamenean dituen senselekiko indar aldaketa gradientearen neurria adierazten du (2-60. irudia) [7].


## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA



Iturria: Norberak egindakoa. OccluSense katalogoa erabiltuta.

2-60. irudia. Sensel bakoitzean dagoen indar altueraren eta kolorearen esanahia.

T-Scan sistemak, informazio kualitatibo honetaz gain, senseletako indar datuekin kalkuluak eginaz, beste zenbait datu kuantitatibo era eskaintzen ditu (2-61. irudia).



Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabiltuta.


2-61. irudia. Hartz bakoitzean dagoen indar ehunekoaren balio numerikoaren kalkulua.

Hortz bakoitzaren posizio eta neurri errealak konfiguratu daitezke, eta hau egin ahal izateko, eskaner intraoral batekin jasotako STL artxiboa inportatzeko aukera ematen du, baina STL hori zehazki lerrokatzeko sistema egokirik ez du. Behin hortz posizioak eta neurriak modu egokian finkatu ondoren hortz pieza bakoitzean dagoen indar ehunekoa ematen du. Inplanteak jarri diren hortz piezetan, informazio hau bereziki garrantzitsua izaten da, gehiegizko indar batek inplantearen porrota eragin baitezake [98–102].

OccluSense sistemak ezin ditu hortz tamainak eta posizioak hortzeria erreal bakoitzera egokitu, ondorioz pantailan azaltzen diren sektoreak ez datoz bat hortz edo hagin erreal bakoitzarekin, eta hau horrela izanik, hortz pieza batean dagoen indar ehunekoa jakitea ezinezkoa da.


Oklusio indarren oreka oker batek ahoko eta buruko osasun arazoak sortzeaz gain, gorputz osoaren posizio orekan ere eragin dezake [103], horregatik erdiko plano sagitalarekiko kontaktu indarren ezker-eskuin oreka (KIO; kontaktu indarren oreka) kalkulatu eta azaltzea garrantzizkoa da. T-Scan gailuak zuzenean ematen duen datua da (2-62. irudia), baina Occlusense gailuaren kasuan, datu hori ematen ez denez, hortz sektore bakoitzean ematen den indarraren ehunekoak batuz kalkulatu beharra dago (2-63. irudia).

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA



Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsioko T-Scan programatik hartutako pantaila erabilia.


2-62. irudia. T-Scan-ak ezker-eskuin indarren orekak kalkulatu eta adierazten ditu.



Iturria: Norberak egindakoa. OccluSense programatik hartutako pantaila erabilia.

2-63. irudia. OccluSense-ak hertz sektore bakoitzaren indar ehunekoa ematen du.

T-Scan sistemarekin oklusio kalitatearen adierazle berriak definitzeko eta erabiltzeko erreminta digital bat sortu zen. Interkuspidadazio maximoko posizioan, oklusioaren oreka eta kalitatea Maness odontologo ikertzaileak aztertu zuen, garai hartako T-Scan sistema erabiliz [97]. Geroago T-Scan II software bertsioak senseletan erregistratutako indar datuekin kalkulaturik, beste oklusioaren orekaren aldagai adierazgarri bat ematen hasi zen: kontaktu indarren zentroa (KI-Z). Oklusioa hasten den unetik, interkuspidadazio maximoko posizioan bukatu arte, KI-Z-aren ibilbidea pantailan ikus daiteke (2-64. irudia).




Iturria: T-Scan 9.1 User Manual liburutik hartutako irudia.

**2-64. irudia.** T-Scan sistemaren softwareak kalkulaturiko kontaktu indarren zentroa eta bere ibilbidea.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

Ordutik, T-Scan software bertsio berri guztietan aldagai honen posizioa eta ibilbidea azaltzen dira. Horrela, Oliveri-k argitaratutako artikulu batean bere erabileraren garrantzia azaldu eta 3 kasu klinikotan erabili zuen [104].

KI-Z-aren posizioa, erdiko plano sagitaletik urruntzen den neurrian, kontaktu indarren desoreka handiago bat adierazten du. Alderantziz, zenbat eta erdirago gelditu, orduan eta oklusio indarra orekatuagoa izango da. Oklusioa ematen ari den bitartean indar datuak aldatzen doaz eta kontaktu indar zentroa mugitzen doa, baina ahoa guztiz itxi eta interkuspidadazio maximoko posiziora iristean indar zentroa geldirik geratzen da (2-65. irudia). Puntu horrek interkuspidadazio maximoko posizioaren indar oreka adierazten du eta ahoko gaixotasun prebentzioan garrantzia duen egoera bat erakusten du [105].



*Iturria: Norberak egindakoa. V10 bertsio T-Scan programatik hartutako pantaila erabilia.*

**2-65. irudia.** T-Scan sistemaren softwareak, bi hortzeria desberdinetan azaltzen dituen kontaktu indar zentroen posizioak eta beraien ibilbideak.

KI-Z-aren posizioa T-Scan gailuak zuzenean ematen duen datua izan arren, Occlusense gailuaren kasuan, lortu ezin daitekeen informazioa da.

Oklusio analizatzaileek emandako irteera datu guztiekin, eta bereziki aipatutako KIO eta KI-Z puntuaren posizioarekin, odontologoek oklusioaren kalitatea aztertzeko



erreminta oso lagungarri bat eskura dute, eta horrela izanik, informazio hau hainbat kasu kliniko eta ikerketetan erabili izan da [106–108].

### **2.6.3 GIZA OKLUSIO BIOMEKANIKAREN INDAR KONTZEPTUEN ULERMENA ETA SAIKUNTZAK**

“The Glossary of Prosthodontic Terms”-ean hortz-oklusioa honela definitzen da: masailezurreko eta barailako hortz analogoen murtzikatze gainazalen arteko erlazio estatikoa da [48]. Hortzen arteko posizio estatikoa, ahoa guztiz itxita dagoenean ematen da, baina oklusioaren informazio funtzional osoa, hortzen arteko kontaktu mugimendu guztiak egitean ematen da. Biomekanikak sistema biologikoen egitura eta funtzioa hobeto ulertzen laguntzen du [109], eta ondorioz, hortzen oklusioaren indar eta desplazamendu guztiak ulertu ahal izateko, giza oklusioan parte hartzen duten elementu biologikoen nagusien izaera eta funtzioa ulertu behar dira [1].

Analizatzaile digitalen erabilera ez da gehiegi zabaldu hortz kliniketan eta honen arrazoietako bat, lortutako datuak ondo ulertu eta interpretatzeko zailtasuna izan liteke.

Zailtasun horietako bat kontaktu indarren zentroaren (KI-Z) kokapenaren garrantzia zein den jakitea da, edo odontologoek KI-Z-aren posizio egokia lortzeko hortzen geometrietan aldaketak egin behar ote dituzten jakitea da. KIZ-a definitzeko eta bere posizio ohikoenak zeintzuk izan beharko luketen jakiteko zenbait analisi kliniko egin dira [97, 104, 110].


Autore batzuek beraien planteamenduetan, gizabanako bakoitzak, interkuspidadio maximoko posizioan (IMP) dagoenean, KI-Z puntuak kokapen bakarra duela ulertzen zuten [40, 97, 110], baina beste autore batzuek zioten, oklusioa interkuspidadio maximoko posizioan ezin dela estatikotzat eta bakartzat hartu [111, 112]. Ondorio

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

horretara iristeko Wiechens odontologo ikertzaileak zuzendutako ikerketa batean, 19 pertsona osasuntsu aukeratu ziren eta horietako pertsona bakoitzari, egun berdineko 3 une desberdinetan, T-Scan III analizatzailearekin oklusioaren erregistroak hartu zitzaizkien, eta gero hortik 15 egunetara, berriro 3 une desberdinetan oklusio erregistroak errepikatu zitzaizkien. Grabatutako datu guztiak estatistikoki konparatu ondoren, interkuspidazio maximoko posizioan, neurtutako hortzen kontaktu puntuen indarren banaketak aldatzen zirela ondorioztatu zuten [111]. Duela urte asko egindako beste ikerketa batean, kontaktu puntuen indarren banaketen aldaketa arrazoia, indar murtxikatzailleetan egon zitekeela adierazi zen [112].

Kontaktu indarren aldaketen jatorria zehazteko, giharretako indarrak aztertu izan dira, eta horretarako, oklusioan parte hartzen duten indar nagusienak aztertu dira. 2-66. irudian ikusi daitekeen bezala, goi eta behe hortzeriak IMP-era iristen direnean, 3 indarrek aldi berean jarduten dute: gihar murtxikatzailleekin pertsonak borondatez eginikoa, hortzetako kontaktu indarra eta artikulazio tenporomandibularren kondiloetan azaltzen den indarra. 3 indar horiek, ahoaren mugimendurik ez dagoenean, oreka estatikoan egon behar dute.




*Iturria: Norberak egindakoa.*

**2-66. irudia.** IMP-an, oklusioan jarduten duten indarrak.

Giharren indarra eta hortzetako kontaktu indarra elkarren artean desberdinak dira. Beraz, horietako indar erresultante bakoitzak oklusio planoarekiko indarren zentroa eta magnitude desberdinak dituzte (2-67. irudia).




Murtxikatze giharrek uzkuetze indar bat eragiten dutenean, masailezurreko eta barailako hortzak IMP-ra iritsi arte elkartzen doaz, eta une horretatik aurrera, giharrek indarra bere handitzen badute, analizatzaile digital batek neurtutako kontaktu indarrak ere handitzen joango dira. Bestetik, artikulazio tenporomandibularreko kondiloetan ere erreakzio indarrak sortzen dira, baina azken hauek ezin dira analizatzailearekin neurtu.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA




2-67. irudia. IMP-an, parte hartzen duten indarren eskema.

Oklusioaren biomekanika aztertu ahal izateko in-vitro saiakuntza bat planteatu da (2-5. taula).

	OKLUSIO INDAR MOTA	ERRESULTANTEA	MAGNITUDEA	INDAR ZENTROA
	Murtxikatze giharren indarra: saiakuntzaren sarrera-indarra	MI	MI-M	MI-Z
	T-Scan-ak neurtutako kontaktu indarrak: saiakuntzaren irteera indarra	KI	KI-M	KI-Z
	Artikulazio tenporomandibularreko indarra	Ez neurtua	Ez neurtua	Ez neurtua

2-5. taula. IMP-ra iristean, oklusio indarrentzat erabilitako laburdurak.

Edozein desberdintasun fisiologikok, edo murtxikatzeko gihar nagusien (maseteroa eta tenporala) edozein alboko simetria faltak [1, 113], murtxikatze indarren zentroaren kokapena, erdiko plano sagitalean ez egotea sortaraziko du. Horretaz gain, gizabanako bakoitzak, nahita edo nahigabe egindako gihar jakin batzuen uzkuradura intentsitatea denboran zehar alda dezake [114–116]. Horren ondorioz, murtxikatze indarren zentroaren (MI-Z), posizioa luzetara (Y ardatzean aurrera edo atzera) mugituko da, eta baita ere erdiko plano sagitaletik alboetara (X ardatzean ezkerrera edo eskuinera). Murtxikatze giharren indarren eta hortzen kontaktu indarren zentroen posizioak 2-68. irudian definitu den erreferentzia sisteman adierazi daitezke, non (X) alboetarako ardatza, eta (Y) luzeetarako ardatza dituen.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**2-68. irudia.** Indar zentroak kokatzeko erreferentzia sistema: (X): alboetarako ardatza, (Y): luzeetarako ardatza.

In-vivo eginiko zenbait ikerketetan, gihar murtxikatzailen jardura, elektromiografiarekin neurtuz, eta hortzen kontaktu indarrak, oklusio analizatzaile digital batekin neurtuaz, batera aztertu dira [117–119]. Baina, bibliografia zientifikoan

ez da aurkitu murtxikatze giharren indarraren simetria ezak izan ditzaken ondorioak ebaluatzen dituen in-vitro azterketarik.

### 2.6.4 ANALIZATZAILEEN ZEHAZTASUN DEFINIZIOAK ETA ESTUDIOAK

Oklusio analizatzaile digitalak, odontologoentzako informazio baliagarria eman arren, oraindik gailu horien erabilera ez da hasieran espero zen bezainbeste zabaldu [96]. Horren arrazoi garrantzitsuenetako bat, egiten dituen neurketen zehaztasunari buruzko zalantzetan egon daiteke. Oklusio analizatzaileek, denboran zehar oinarrizko bi datu mota jaso behar dituzte:

1. Hortz gainazaletan kontaktu puntuen lokalizazioak.
2. Hortz gainazalen kontaktu puntuetan sortzen diren indar magnitudeak.

Informazio hau sentsorearen sensel-etan jaso ondoren, aurrena elektronikoki eta gero informatikoki tratatu, eta ordenagailu pantailan informazio kualitatiboan eta kuantitatiboan bihurtuz erabiltzaileari eskaintzen zaio.

Aipatutako bi oinarrizko datu moten zehaztasunak aztertzen dituen artikuluen azterketa egin ondoren, analizatzaile digitalek emandako hortz gainazalen kontaktu puntuen lokalizazioen zehaztasuna aztertzen duen ikerketa batzuk aurkitu dira [19, 21, 22, 120–122]. Aldiz, analizatzaileak neurtzen dituen indar intentsitateen balioen zehaztasuna gutxiago aztertu izan da [90, 20, 23, 123]. Gainera, kontaktu indarren ezker-eskuin orekaren zehaztasunari buruzko ikerketa bakarra aurkitu da [124].

Bozhkova odontologia ikertzaileak, T-SCAN III sistema, 30 pertsonekin erabili eta aztertu ondoren, hortzen oklusio azaleretan ematen diren kontaktuak eta indarrak denbora-sekuentzian detektatzeko modu zehatz bakarra zela ondorioztatu zuen [88]. Hala ere zehaztasunaren egiaztapenik egin ezenez, ikerketa egin zen 2016. urtean

denbora sekuentzian neurriak hartu ditzaken metodo bakarra T-SCAN III sistema zela ulertu behar da.


Bozhkova-k beste ikerketa batean [19], 100µm-tako paper artikulatuarekin, 12 µm-tako folio artikulatuarekin eta 100 µm-tako lodiera duen T-Scan Novus gailuaren HD sentsoarekin hortz kontaktu puntuen lokalizazioak detektatzeko zehaztasunaren ikerketa konparatibo bat egin zuen. In-vitro eginiko saiakuntza bat izan zen, horretarako behe eta goi hortzeria artifizial (Frasaco GmbH) batzuk, torloju prentsa batean muntatuta, ireki eta IMP-an ixteko tresneria prestatu zuen (2-69. irudia).



Iturria: [19] artikulatik hartutako irudiak.

**2-69. irudia.** In-vitro saiakuntza egiteko erabilitako hortzeria eta prentsa.


Tresneri hori erabiliz, paper artikulatua, folio artikulatua eta T-Scanaren HD sentsoarekin kontaktu puntuen kokapena hartu (2-70. irudia eta 2-71. irudia) eta estatistikoki konparatu zituzten.



Iturria: [19] artikulatik hartutako irudiak.

**2-70. irudia.** In-vitro saiakuntza eginda, kontaktu puntuen kokapenak.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA




Iturria: [19] artikulutik hartutako irudiak.

**2-71. irudia.** In-vitro saiakuntzekin, kontaktu puntuen indar intentsitateak.

T-Scan-aren kontaktu kokapenak guztiz zehatzak ez zirenez, hortz kliniketan bi metodoak batera erabiltzea komeni zela ondorioztatu zuen; kontaktu kokapenak metodo tradizionalekin detektatzen ziren hobekien, baina indar intentsitateak eta beraien arteko orekak ordea, T-Scan analizatzailearekin.

Jeong ikertzaileak, Accura eta T-Scan analizatzaileek IMP-an detektatutako kontaktu puntuen posizioak konparatu zituen [21]. Horretarako igeltsuzko hortzerien oklusio gainazalak segmentutan zatitu eta segmentu bakoitzean azaltzen ziren kontaktu lokalizazioak konparatu zituen (2-72. irudia). Bi aparatuek, lokalizazioak detektatzeko zehaztasuna berdintsua zutela ondorioztatu zuen.




Iturria: [21] artikulutik hartutako irudiak.

**2-72. irudia.** T-Scan eta Accura sentsoreak igeltsuzko hortzerietara gainjarri ziren kontaktuen detekzio zehaztasuna aztertzeko

Solaberrieta ikertzaileak, T-Scan analizatzaileak detektatzen zituen kontaktu puntuak pazienteen digitalizatutako hortzerietan zehatz lokalizatze teknika bat proposatu



zuen [122]. Hobekuntza, hortzeria errealaren STL eskaneaketa bat eta T-Scan analizatzaileen neurketa emaitzak lerrokatuz eta elkarrekiko proiektatuz lortzen zen, horrela kontaktu puntuen lokalizazioaren zehaztasuna hobetuz (2-73. irudia) [125].



Iturria: [122] artikulutik hartutako irudiak.

**2-73. irudia.** T-Scan-aren emaitzen eta STL eskaneaketaren arteko lerrokatzea eta proiektzioa.

Indarren neurketan zehaztasunari buruzko estudioak gutxiago izan dira. Lee ikertzaileak Accura eta T-Scan analizatzaile digitalekin neurtutako indarren egiazkotasuna eta errepikakortasuna in-vitro saiakuntzen bidez konparatu zituen [20].

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA




Table 1. Experimental protocol

Device	Day	Film Sensor 1		Film Sensor 2		Film Sensor 3		Film Sensor 4		Film Sensor 5	
		Rater 1	Rater 2	Rater 1	Rater 2	Rater 1	Rater 2	Rater 1	Rater 2	Rater 1	Rater 2
Accura	Day 1	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial
		Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial
		Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial
	Day 2	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial
		Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial
		Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial
T-scan Novus	Day 1	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial
		Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial
		Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial
	Day 2	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial	First trial
		Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial	Second trial
		Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial	Third trial


*Iturria: [20] artikulutik hartutako irudiak.*

### 2-74. irudia. In-vitro egindako kontaktu indarren zehaztasunen konparaketak.

2-74. irudian ikusi daitekeen bezala, titaniozko giza hortzeria bat fabrikatu eta hortz artikuladore erdi doigarri batean IMP-an muntatu zuen. Saiakuntzarako makina unibertsala erabiliz, 50 Newtonetako konpresio indarra aplikatu eta 2 egun desberdinetan 5 sentso desberdinekin analizatzaileen indarren neurketak hartu zituen. Konparatu zuen datu bakarra, analizatzaileek neurtutako indar magnitude totala izan zen, eta bi analizatzaile digitalen (Accura eta T-Scan) egiazkotasun eta errepikakortasun altua zutela ondorioztatu zuen.

Cerna ikertzaileak T-Scan III sistemaren baliozkotasuna frogatzeko in-vitro saiakuntza bat planteatu zuen [23]. Horretarako IMP-an “phantom” hortzeria bat muntatu, eta goiko hortzeriaren goi gainazalean 3 puntutan, kalibratutako 150 Newtonetako

konpresio indarra egiteko gaitasuna zuen mekanismo bat erabili zuen (2-75. irudia). Konpresio indarra 3 puntuetan banatzen zen, analizatzaileak kalkulatzeko zentrua, erdiko plano sagitalean ondo zentratuta geratu arte. Neurketa emaitza bezala konparatu zituen 2 neurri datuak, analizatzailek neurtutako indar magnitude totala eta indarra aplikatzeko abiadura izan ziren.



Iturria: [23] artikulutik hartutako irudiak.

**2-75. irudia.** In-vitro egindako kontaktu indarren zehaztasunen konparaketak.

Saiakuntza honekin, T-Scan analizatzailearen sentsoreak fabrikazio serie desberdinekoak baldin baziren, neurtzen duten indar magnitude totala fidagarria ez dela ondorioztatu zuen. Baina erabilitako sentsoreak fabrikazio serie berdinekoak zirenean, neurtutako indar magnitude totala errepikakorragoa zela ondorioztatu zuen.

Egin diren zehaztasun saiakuntzak ondo ulertzeko eta saiakuntza berriek planteamendu egoki bat izan dezaten, neurketa gailuen zehaztasuna, egiazkotasuna eta doitasuna ondo definitu behar dira. Edozein neurketa gailuk izan behar duten ezaugarri garrantzitsuena zehaztasuna da. ISO 5725-1 aruaren arabera [126], zehaztasuna, doitasuna eta egiazkotasuna arteko konbinazioa da (2-76. irudia). Hiru termino hauek aipatutako arauan argi definitzen dira:


## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

Zehaztasuna (“Accuracy” ingelesez): zehaztasunak, neurketa baten emaitzaren eta onarturiko erreferentzia balioaren edo egiazko balioaren arteko gertutasuna ematen du. Neurkizun (“measurand” ingelesez) beraren neurketa prozesua errepikatuz, balio ezberdinak lortuko dira eta aipaturiko zehaztasun kontzeptua, egiazkotasun (“trueness” ingelesez) eta doitasun (“precision” ingelesez) kontzeptuetan bereizi beharko da.

Egiatzkotasuna (“Trueness” ingelesez): test edo neurketa ugari egin ondoren, neurketa horien emaitzen batezbestekoaren eta onartutako erreferentzia balioaren arteko gertutasuna emango duena da.

Doitasuna (“Precision” ingelesez): aurretik finkatutako neurketa baldintza batzuen barruan egindako neurketa ezberdinen emaitzen arteko gertutasuna emango duena da (2-79. irudia).




*Iturria: Norberak egindakoa.*

**2-76. irudia.** Zehaztasunaren, egiazkotasunaren eta doitasunaren azalpena.

Doitasunaren neurketa egiten den baldintzen arabera, errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna definitu daitezke.

Errepikakortasuna (“Repeatability” ingelesez): metodo berarekin, lagin berdinen gainean, laborategi berean, operadore berak, eta neurketa-ekipo berak erabiliz, denbora tarte labur batean lorturiko emaitza independenteen doitasuna da (2-77. irudia).




*Iturria: Norberak egindakoa, [127] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*

**2-77. irudia.** Errepikakortasunaren azalpena.

Errepikakortasuna, neurketa gailu baten kalitate maila erabakitzeke erabiltzen den irizpide nagusienetako bat da [127].

Erreproduzigarritasuna (“Reproducibility” ingelesez): metodo berarekin, lagin berdinen gainean, laborategi desberdinean, operadore desberdinak, eta neurketa gailu desberdina erabiliz, denbora tarte ez labur batean lorturiko emaitza independenteen doitasuna da (2-78. irudia).




*Iturria: Norberak egindakoa, [127] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*

**2-78. irudia.** A, B eta C neurketa baldintza desberdinak izanik, erreproduzigarritasunaren azalpena.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

Analizatzaile digital baten neurrien errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna neurtzeko, ISO 5725-1, ISO 5725-2 eta ISO 5725-3 arauak jarraitzen dira [126, 128, 129]. Odontologia digitalean erabiltzen diren aparatuentzat, errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna kontzeptuak jarraituz, doitasunak neurtzeko gida bat dago [130]. Hala ere, oklusio analizatzaile digitalentzat kontzeptu hauek erabiltzen dituen doitasun estudiorik ez da aurkitu.



*Iturria: Norberak egindakoa, [127] erreferentzietatik hartutako irudiak erabilia.*

**2-79. irudia.** A, B eta C neurketa baldintza desberdinak izanik, doitasunaren azalpen grafikoa.

### **2.6.5 MOMENTU EZBERDINETAN HARTUTAKO OKLUSIO ERREGISTROEN DOITASUNA**

Oklusio analizatzaile digitalek oklusioaren kalitatea aztertzeko informazio baliotsua ematen dute, eta informazio hori hainbat helburu kliniko desberdinetarako garrantzitsua da, hala nola artikulazio tenporomandibularreko gaixotasunak antzeman eta zuzentzeko [117, 131], inplanteekin edo inplanterik gabe hortz errehabilitazioak ebaluatzeko [99, 105], ortodontzia tratamenduen emaitza ebaluatzeko [132], eta baita ere hortzetako beste hainbat arazo tratatzeko ere, bruxismoa [133], hortz-higadura larria [134], eta giharretako mina [107], besteak beste.

Errehabilitazio tratamendu batzuen azterketa kliniko prospektiboak egin izan dira, eta hauetan, oklusioaren eboluzioa tratamenduaren fase desberdinetan analizatu izan da, oklusio analizatzaile digitalak erabiliaz [83, 98, 99, 135, 136]. Errehabilitazio tratamendu baten fase desberdinetan lortutako informazioa alderatu ahal izateko, erregistroen aldakortasunean lagun dezaketen faktoreak minimizatzea, eta beraz, erregistroen doitasuna hobetzea beharrezkoa da [129]. Bi momentu desberdinetan (normalean egun desberdinetan), paziente bati oklusio neurketak hartzen zaizkionean, odontologo berdinak hartzen dizkio (gailuaren operadore edo erabiltzaile berdina), gailu eta sentsore berdina erabiliz, eta lan kabinete berdinean eginez. Nagusiki, bi momentu desberdinetan aldatzen dena, sentsoreak pazientearen aho barruan hortzeriekiko duen kokapena izaten da. Beraz, ISO arauan [129] aipatzen diren “operadore”, “neurketa gailu” eta “laborategi” aldagaiak berdin mantentzen dira, baina “denbora” aldagaia da neurketa batetik bestera aldatzen den bakarra. Horregatik, “denbora” aldagaia aldatzeak sentsorearen kokapena aldatzea darama.

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA


---

Hori horrela izanik, bi momentu desberdinetan analizatzaile digitalaren sentsore piezoelektrikoa, pazientearen ahoan berdin kokatu ezinak, KIO-en eta KI-Z-en neurketen doitasunean eragina izan dezake. Zentzu honetan, Wiechens-ek eginiko azterketan [111], oklusio analizatzaile digital batekin IMP-an neurtutako oklusio indarren KIO-ak eta KI-Z puntuak egunean zehar aldatzen zirela ondorioztatu zen. Hau horrela bada, komenigarria litzateke jakitea hori oklusio analizatzaile digitalaren doitasun falta edo beste arrazoi batzuen ondorio ote den [112].

T-Scan analizatzaile digitalak, bere sentsorea goiko hortz uztaiarekiko ondo zentratzeko euskarri bat dute. Euskarri horrek duen punta zentrala, bi ebakortzen artean jarrita, sentsorearen puntu bat pazientearen goi hortzeriarekiko beti modu berdinean kokatuta geratzea ahalbidetzen du. Baina zentratzeko euskarri honek, sentsorearen kokapena guztiz berdina izatea ez du bermatzen. Nahiz eta sentsorearen puntu bat hortzeriarekiko beti berdintsu kokatzeko gaitasuna izan, 2-80. irudian ikus daitekeenez, sentsorea puntu horrekiko biratu daiteke eta horrek oklusio indarren erregistroetan aldaketak eragiten ditu.

2-80. irudian, sentsorea ebakortzen artean gradu batzuk biratuta kokatu da eta posizio bakoitzari dagokion oklusio indarren informazioa aztertuz, kontaktu indarren zentroa oso desberdinak direla ikus daiteke.





*Iturria: Norberak egindakoa.*

**2-80. irudia.** A, T-Scan sentsorearen bi kokapen ebakortzen arteko ardatzarekiko biratuz. B, sentsorea A posizioetan egonik hartutako oklusio erregistroak.

Are okerrago, OccluSense analizatzaile digitalak ez du T-Scan-ak duen sentsorea zentratzeko antzeko euskarrik, eta horrek OccluSense aparatuaren doitasunean eragin zuzena okerrera du [75].

## 2. GAIAREN ESPARRU TEORIKOA

---

## **3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK**

---

### **3.1 SARRERA**

Kapitulu honetan, giza oklusioaren analizatzaile digitalen inguruko tesi hau garatzeko erabili diren funtsezko baliabide metodologikoak azalduko dira. Egindako ikerketetan, lortu beharreko helburuak lortu ahal izateko, in-vitro saiakuntzak planteatu eta gauzatu dira. Saiakuntza hautan lorturiko emaitzak estatistikoki aztertzeko, IBM SPSS Statistics softwarea (26. bertsioa) eta “Real Statistics Resource Pack” osagarria instalatuta duen Microsoft Excel softwarea (2016 bertsioa) erabili dira.

Jarraian, in-vitro esperimentuetan erabilitako elementuak eta analizatzaile digitalen doitasuna aztertzeko erabili den GRR metodologia estatistikoa azalduko dira.

### **3.2 IN-VIVO ETA IN-VITRO SAIKUNTZAK**

Odontologiaren ikerkuntzaren arloan, in-vivo eta in-vitro saiakuntzak, bakoitzak bere abantailak eta mugak dituen bi ikuspegi dira. Bi saiakuntza aukerak funtsezkoak dira hortz tratamenduak, materialak eta teknika berriak ikertzeko eta garatzeko, eta haien arteko aukeraketa ikerketaren helburu espezifikoaren eta lortu nahi den informazioaren arabera da [137].

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

---


In-vivo saiakuntzek benetako pazienteekin ikerketak egitea eskatzen dute, eta horri esker, tratamendu edo material batek benetako aho ingurunean nola eragiten duen ebaluatu daiteke. In-vivo saiakuntzen abantaila esanguratsuenetako bat, praktika klinikoari zuzenean aplikatu dakizkieken emaitzak ematen dituztela da [138]. Beraz, in-vivo saiakuntzak funtsezkoak dira benetako testuinguru kliniko batean tratamendu baten tolerantzia, albo ondorioak eta eraginkortasuna ebaluatzeko. Hala ere, in-vivo saiakuntzak egitea garestia izan daiteke, denbora gehiago eskatzen dutelako eta estatistikoki emaitza sendoak lortzeko parte hartzaile kopuru handia eska dezaketelako. Gainera, badira kontsiderazio etikoak ere, hala nola pazienteen baimen informatua lortzea eta ikerketan zehar haien segurtasuna bermatzea [139], eta zentzu honetan ezinbestekoa izaten da erakundeen etikako oniritziak izatea. Tesi honen kasuan, Euskal Herriko Unibertsitatearen etikako oniritziaren baldintzapean zenbait in-vivo saiakuntza egin behar izan dira.

Bestalde, in-vitro saiakuntzak kontrolatutako laborategi ingurune batean egiten dira, lagin biologikoak edo aho baldintzen simulazioak erabiliz. Saiakuntza horiek oso kontrolatuak eta erreproduzigarriak dira, eta horrek aldagai espezifikoak manipulatzeko eta gertaerak xehetasunez behatzea errazten du. In-vitro azterketak, pazienteei aplikatu aurretik, hortzetako gaixotasunen mekanismoak hobeto ulertzeko, hortzetako material berrien erresistentzia, iraunkortasuna eta bateragarritasuna, eta beste hainbat gauza probatzeko ere, baliagarriak dira. Gainera, in-vitro saiakuntzak, normalean in-vivo saiakuntzekin alderatuta, azkarragoak izateagatik ere merkeagoak izaten dira [140].

Hala ere, in-vitro saiakuntzen emaitzek ez dutela ahoko ingurune errealearen konplexutasuna guztiz islatzen azpimarratzea garrantzitsua da. Alde batetik, ahoko ehun biziak dinamikoak dira [141], eta bestetik, elkarren artean isolatu ezin daitezkeen hainbat estimuluri erantzun bakar bat emanez erantzuten diete. Beraz, in-

vitro saiakuntzen emaitzak arretaz interpretatu behar dira, eta, aplikazio klinikoetara eramanez aurretik, kasu gehienetan, in-vivo azterketen bidez balioztatu behar dira.

Tesi lan honetan, giza aho oklusioan gertatzen diren indarren ezaugarriak aztertzeko in-vitro saiakuntza bat diseinatu da (3-1. irudia). Horretarako, ahoan dauden benetako elementu biologikoak ordezkatu, simulatu eta hauen funtzioak modu baliokidean betetzen dituzten elementuak eta sistemak erabili dira. Ondorengo ataletan in-vitro saiakuntzan erabilitako elementuen ezaugarriak eta betebeharrak azaltzen dira.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-1. irudia.** Oklusio indarrak aztertzeko in-vitro saiakuntza.

#### **3.2.1 IGLTSUZKO HORTZERIAK**

Paziente erreal bakoitzeko, bere goiko eta beheko hortzerien igeltsuzko erreplika bat egin da (3-2. irudia), horretarako 2.4.3 atalean azaldutako prozedura jarraitu da. Igltsuzko hortzeriak benetako hortzerien xehetasun geometriko guztiak modu zehatzean errepresentatzeko gai dira eta igeltsuak duen erresistentziarekin, saiakuntzetan egingo diren indarrak arazo gabe jasateko gai dira.

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

---



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-2. irudia.** Bi gizabanakoren igeltsuzko hortzeriak.

#### **3.2.2 EZ-ARCON MOTAKO ARTIKULADORE ERDI DOIGARRIA**

2.4.2 atalean azaldutako artikuladoreen artean, III. motako artikuladore mekanikoa bat (Artex CN; Amann Girrbach AG) erabiltzea erabaki da. Artikuladore mota hauek oklusioaren mugimenduak zehaztasunez erreproduzitzeko gaitasuna dute, baina gizabanako bakoitzaren neurritara doitu beharrik ez dago (3-3. irudia). Hau dela eta, hortz kliniketan egiten diren errestaurazioa tratamenduentzat gehien erabiltzen den artikuladore mota da [25]. Artikuladoreak, gizakiaren masailezurra, baraila eta ATM giltzadura ordezkatzeko ditu.

2.4.3 atalean azaldutako prozedura jarraituz, igeltsuzko hortzeriak IMP-an artikuladorera transferitzen dira. Horretarako, hortzeria bakoitzeko oklusioaren erregistroak hartzen dira, eta guztietan arku faziala (Artex facebow; Amann Girrbach AG) eta transferentzia mahaia (Artex Transfer Table; Amann Girrbach AG) hortzerien orientazio eta posizioak maxilarrarekiko berdin kokatzeko erabiltzen dira. Artikuladoreen muntaia prozedura hau oso ezaguna eta erabilia da edozein hortz kliniketan, beraz kalitatez lorturiko hortzeria artikulatuak erraz lortu daitezke.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-3. irudia.** Artex CN (Amann Girrbach) artikuladore erdi doigarria.


### **3.2.3 MURTXIKATZE INDARRA SIMULATZEKO SISTEMA ETA ELEMENTUAK**

Murtxikatze giharrek egiten duten indarra modu kontrolatu eta errepikakor batean simulatzeko, 3-4. irudian azaltzen den zulagailu bertikal bat (OPTI F30; Optimum) eta elementu osagarri batzuk erabili dira: punta esferikoa, pisuak eta dinamometro digitala.

Ahoaren ixte indarra, artikuladorearen goiko osagaia zapalduz simulatu daiteke, horretarako 12,5 mm-tako diametroa duen punta esferiko bat zulagailuaren erreminta euskarrian kokatuko da. Gainera, zulagailuaren jaiste palankan pisu batzuk zintzilikatuz, beti indar berdina aplikatzea lortzen da. Eta punta esferikoak aplikatzen duen indar magnitude hori ezagutu nahi bada, dinamometro digital batekin (Beslands Push-pull Force Gauge, SF-500; beslandstool) neurtzen da (3-4. irudia).

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

---




*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-4. irudia.** A; zulagailu bertikala, B; zapaltzeko punta esferikoa, C; kontrolatutako indarra ezartzeko pisua eta dinamometroa.

Punta esferikoak artikuladorearen goiko elementua zapaltzen du. Zapalkuntza indarra aplikatzeko puntua, erdiko plano sagitaletik alboetara desplazatuz, murtxikatze indar desorekatu bat simulatzen da. Puntaren desplazamendua zenbat eta handiagoa izan,



orduan eta murtxikatzeko indar totalaren ezker eskuin desoreka handiago bat simulatzen da (3-5. irudia).




Iturria: Norberak egindakoa.

3-5. irudia. Puntaren desplazamenduaren azalpen grafikoa.

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

---

Kontaktu indarren zentroarentzat erabiliko den erreferentzia sistema (2-68. irudia) berdina duen txantilo bat itsatsi zaio artikuladorearen goiko elementuari, horrela murtxikatze indarraren aplikazio puntuak txantiloaren gainean aldatzean, murtxikatze indarren desoreka desberdinak simulatzen dira (3-6. irudia).




*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-6. irudia.** Murtxikatze indar desorekatua kontrolatzeko txantiloa. (X): zeharkako ardatza, (Y): luzeetarako ardatza.


### 3.2.4 OKLUSIO ANALIZATZAILE DIGITALEN KOKAPENAK

T-Scan eta OccluSense analizatzaile bakoitzari neurrira diseinatutako euskarri bat fabrikatu zaio (3-7. irudia), eta fabrikatutako euskarri hauek erabiliz, analizatzaile digitalen sentsorea artikulatutako ahoaren hortzeriekiko posizio finko batean mantentzen dira (3-8. irudia), murtxikatze indarrak behin eta berriz aplikatzen diren bitartean. Kokapen sistema honek, odontologoek eskua eta sentsorea toki berean mantentzeko gaitasuna simulatzen du.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-7. irudia.** Oklusio analizatzaileentzat neurrira fabrikatutako euskarriak.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-8. irudia.** Analizatzaileen sentsorea hortzerietan kokatzeko sistema.


### **3.3 NEURKETA APARATUEN DOITASUNA NEURTZEKO GRR METODOLOGIA**

Edozein prozesu klinikotan, neurketa aparatu batekin egindako neurrien zehaztasuna ondo bermatuta izatea funtsezkoa da. Jakina da, zehaztasun altua lortzeko, doitasun eta egiazkotasun altuak konbinatzen dituen neurketa sistema bat beharko dela, eta era berean, doitasuna altua lortzeko neurketa sistema osoak errepikakortasun eta erreproduzagarritasun altuak konbinatu beharko dituela [130].

Neurketen zehaztasuna ebaluatzeko eta bermatzeko, metodologia espezifikoak erabili daitezke, eta horietako bat GRR “Gage Repeatability and Reproducibility” izena duen, eta industrian zabaldua dagoen, metodo ezaguna da [142, 143]. GRR metodoak, neurketa sistema osoak (neurketa aldagaia jakin batzuk dituen: aparatua, neurketa prozedura, erabiltze tokia, erabiltzailea, eta abar), hartzen dituen neurri numerikoen doitasuna ebaluatzeko erabiltzen den metodo bat da [127].

#### **3.3.1 ZEHARKAKO GRR METODOLOGIAREN PLANTEAMENDUA ETA HELBURUA**


Piezak edo hortzeriak suntsigarriak ez direnez, tesi honetan zeharkako GRR metodoa erabili da [144]. Metodo honek, neurketa sistema, neurketa aldagai jakin batzuekin (neurketa-ekipoa, erabiltze tokia, erabiltzailea, eguna), indibiduo multzo berdin bati errepikakortasun baldintzetan (metodo berarekin, indibiduo berdinari, laborategi berean, operadore berdinak, eta neurketa-ekipo bera erabiliz, eta denbora tarte labur batean) zenbait aldiz neurriak hartzea eskatzen du. 3-9. irudiak, A eta B neurketa aldagai desberdinekin, P1-P6 piezei neurri berdina zenbait aldiz hartzen zaiela adierazten du.



Iturria: Norberak egindakoa.

3-9. irudia. Zeharkako GRR metodologiaren neurriak hartzeko eskema.

Neurri guztiak hartu ondoren, analisi estatistiko bat burutuz, neurri horien aldakuntzak aztertzen dira. Analisi estatistikoaren emaitza bezala, neurrien aldakuntzen arrazoiak zeintzuk diren analizatzen da. Aurreneko fase batean, aldakuntzaren arrazoiak, pieza desberdinak neurtu direlako edo neurketa sistemak doitasun faltak dituelako ondorioztatuko da, eta arrazoi horietako bakoitzaren eragina kuantifikatuko da (3-10. irudia).




Iturria: Norberak egindakoa.

3-10. irudia. GRR metodologiak neurketen doitasun falta kuantifikatu dezake.

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

---

Neurketa sistemaren doitasun falta kuantifikatu ondoren, bigarren fase batean doitasun falta horren arrazoa zein den ondorioztatzen da. Arrazoa, sistemaren errepikakortasun falta edo erreproduzigarritasun falta izan daitekeelarik (3-11. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**3-11. irudia.** GRR metodologiak errepikakortasun eta erreproduzigarritasun falta kuantifikatu dezake.

Errepikakortasuna, neurketa bera operadore berak behin eta berriz jarraian baldintza berdinetan egiten duenean definitzen da. Errepikakortasuna neurgailu batek emaitza doiak neurtzeko duen gaitasunari erlazionatzen da. Beraz, errepikakortasun altuak neurketak koherenteak eta fidagarriak direla adierazten du [127].

Erreproduzigarritasunak bestalde, magnitude bera metodo berdina erabiliz, baina operadore, ekipo, laborategi edo/eta egun desberdinetan neurtzen denean, antzeko emaitzak lortzeko duten gaitasuna ebaluatzen du. Errepikakortasun altuak eta erreproduzigarritasun baxuak, neurketak sendoak direla adierazten du, baina

operadore, ekipo, laborategi edo/eta egun desberdinen artean aldera daitezkeela [127].

#### 3.3.2 ZEHARKAKO GRR METOLOGIA BURUTZEKO PAUSOAK

GRR metodologia burutzeko hiru metodo nagusi daude: heinaren metodoa, batezbesteko eta heinaren metodoa, eta ANOVA bidez aldakuntzaren analisiaren metodoa. Azken hau errepikakortasunari eta erreproduzigarritasunari buruzko informazio gehien ematen duen metodoa denez [145], tesi lan hau burutzeko erabili dena izan da. Metodoa burutzeko ondorengo urratsak eman behar dira:

1. Piezak edo hortzeriak hautatzea: prozesuan neurketaren aldakortasun guztia ondo adierazten duten piezak edo hortzeriak aukeratzen dira.
2. Erreproduzigarritasun baldintzak aldatzen dituzten eragileak (neurketa baldintzak) hautatzen dira: operadorea, gailua, laborategia, edo eta eguna izan daitezke. Eragileen hautaketak erreproduzigarritasuna ebaluatzeko balio duenez, lortuko diren ondorioak erreproduzigarritasun baldintzen baitan egongo dira. Tesi honetan eguna edo denbora aldatu da bakarrik, beraz lortu diren erreproduzigarritasun ondorioak denbora aldaketari dagozkie.
3. Neurketa errepikatuak: hautatutako erreproduzigarritasun eragileekin, pieza bakoitza zenbait aldiz errepikakortasun baldintzetan neurtu da.
4. Datuak bildu eta beraien aldakuntzaren analisia, ANOVA estatistika metodoa erabiliz burutzen da. Ondoren, eta adibide modura prozedura honekin lortzen den emaitzaren taula tipiko bat azaltzen da (3-1. taula).

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

GRR NEURKETA SISTEMEN EBALUAZIOA						
ANOVA	Alpha				0,05	
	KB	AM	BK	F	P-balioa	Sig.
Pieza	4,562	9	0,507	35,626	<0,001	
Eragilea	0,028	3	0,009	0,660	0,584	
Eragile*pieza	0,384	27	0,014	27,701	<0,001	Bai
Errepikakortasuna	0,108	200	<0,001			
Totala	5,077	239	0,021			
Aldakuntza						
				AIAG klasifikazioa		
	Bariantza		DS		Tartea	Ebaluazioa
GRR Totala	0,280%	12,0%	5,3%	34,6%	>30%	Txarra
- Errepikakortasuna	0,051%	2,2%	2,3%	14,8%	10%-30%	Ertaina
- Erreproduzigarritasuna	0,229%	9,8%	4,8%	31,3%	>30%	Txarra
-- Eragilea	0,000%	0,0%	0,0%	0,0%		
-- Eragile*pieza	0,229%	9,8%	4,8%	31,3%		
Pieza-pieza	2,053%	88,0%	14,3%	93,8%		
Aldakuntza totala	2,332%	100,0%	15,3%	100,0%		
Kategoria zenbakia:		3				

AIAG, automotive industry action group. AM, askatasun mailak. F, Fisher estatistikoa. GRR, gage repeatability and reproducibility. BK, batezbesteko karratua. DS, desbideratze estandarra. KB, karratuen batuketak.

**3-1. taula.** GRR metodoaren emaitza taula adibidea.

- Emaitzen interpretazioak: analisiaren emaitzen taulan oinarrituta, neurketa sistemaren ebaluazioa egin daiteke. Horretarako, 3-1. taulako datu batzuk aztertzen dira: Hartutako datu guztien aldakuntza totaletik, %88,0-a piezak desberdinak izateagatik da, eta %12,0-a neurketa sistemak duen doitasun faltagatik. Gainera, doitasun falta horretatik, %2,2-a neurketa sistemaren errepikakortasun faltagatik da, eta %9,8-a neurketa sistemaren erreproduzigarritasun faltagatik.

Bestalde, Amerikako “automotive industry action group” (AIAG) erakundeak, metodo hau jarraituz eta lorturiko emaitzen arabera, neurketa sistemaren errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna baloratzen du. Zeharkako GRR frogan lortutako errepikakortasunaren eta erreproduzigarritasunaren desbideratze estandarren proportzioaren arabera (3-1. taula), horiek ona, ertaina eta txarra bezala baloratzen dira (3-2. taula).



Desbideratze estandarraren %	Ebaluazioa
< %10	Ona
> %10 eta < %30	Ertaina
> %30	Txarra

**3-2. taula.** AIAG erakundeak doitasuna, errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna ebaluatzeko proposatzen duen irizpidea.

### 3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

---

## 4. HELBURU OROKORRAK

---

Lan honen helburu orokorrak honako hiru hauek izan dira.

1. Oklusioaren biomekanikan parte hartzen duten indarrak modu egokian simulatuko dituen in-vitro saiakuntza berriak sortzea, bertako indarrek nola elkar eragiten duten aztertzeke eta odontologia arloan horien inguruko ulermena hobetzeko.
2. Odontologiako merkatuan erreferenteak diren bi oklusio analizatzaile digitalak aztertzea, eta bakoitzaren azken hardware eta software bertsioak erabiliz, bi gailuen zehaztasunaren azterketak eta konparaketak egitea.
3. Merkatuan erreferenteak diren 2 oklusio analizatzaile digitalen neurketa metodoak zehatzago izateko teknika berritzaileak planteatzea eta horien egokitasuna frogatzea.

#### 4. HELBURU OROKORRAK

---

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---

### 5.1 1. ARTIKULUA: Murtxikatze indarren zentroak, oklusioko kontaktu indarren posizioan duen eragina, oklusio analizatzaile digital bat erabiliaz

#### 5.1.1 HELBURU ZEHATZAK ETA HIPOTESIAK

Helburu zehatza: interkupidazio maximoko posizioan dagoen edozein igeltsuzko hortzeria artikulatuk dituen kontaktu indarren zentroak beti finko mantentzen diren analizatzea.

Murtxikatze indarren magnitudea konstante mantenduta, kontaktu indarren zentroaren posizioa beti toki finko berdinean gelditzen bada, posible litzateke hortzerien geometria aldatuz, kontaktu indarren zentroaren posizioa, klinikoki egokia den posizio bateraino behin betiko eramatea. Aldiz, murtxikatze indarren magnitudea konstante mantenduta, horien aplikazio zentroa posizioz aldatzean kontaktu indarren zentroaren posizioa aldatzen bada, hortzerien geometria aldatzeak bakarrik ez luke betirako bermatuko klinikoki egokia den kontaktu indarren zentroaren posizio bat lortzea.

Hipotesiak: analisia aurrera eramateko honako bi hipotesi nulu hauek ezarri dira:

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---


1. Artikulatutako igeltsuzko edozein hortzeria batean, murtxikatze indarren magnitudea konstante mantentzen bada, ez da murtxikatze indarren zentroaren posizioaren eta kontaktu indarren zentroaren posizioaren arteko eraginik egongo.
2. Artikulatutako igeltsuzko edozein hortzeria batean, murtxikatze indarren magnitudea konstante mantentzen bada, ez da murtxikatze indarren zentroaren posizioaren eta kontaktu indarren magnitudearen arteko eraginik egongo.

### 5.1.2 METODOLOGIA

Murtxikatze indarren zentroaren posizioak, kontaktu indarren zentroaren posizioan eta kontaktu indarren magnitudean duen eragina aztertzeko, murtxikatze indarrarekiko baliokide den eta magnitude konstantea duen sarrera-indar bat aplikatu da, 3-4. irudian ikusten den hortzeria artikulatuen gainean, 9 posizio desberdinetan (posizio bakoitzak, murtxikatze indarren oreka egoera desberdin bat simulatzen du). Saiakuntzan 3 hortzeria desberdin erabili dira (CASE GSR, CASE GSL eta CASE BSL), artikuladore erdi doigarri batean (Artex CN; Amann Girrbach) IMP-an muntatuta. Horretarako 3 hortzeriak, 3.2.3 ataleko elementuak erabiliz eta 2.4.3 atalean azaltzen den prozedura jarraituz prestatu dira. Prozedura hori jarraituz, bat datoz gizabanako bakoitzaren Frankfurt plano eta artikuladorearen goiko osagaiaren plano (2-35. irudia).

Hiru hortzeria horiek, oklusio ezaugarri desberdinak izateagatik hautatu dira: CASE GSR hortzeriak (“Good Symmetry and Right displaced”) kontaktu-puntu asko ditu, ezker eskuin simetria onekoa da, eta KI-Z apur bat eskuinerantz desplazatua du; CASE GSL hortzeriak (“Good Symmetry and Left displaced”) ere kontaktu-puntu simetrikoki asko ditu, baina bere KI-Z ezkererantz apur bat mugitua du; azkenik, CASE BSL hortzeriak (“Bad Symmetry and Left displaced”) simetria gabeko kontaktu-puntu gutxi ditu, eta bere KI-Z erdiko plano sagitalaren ezkeraldera asko desplazatua du.

Artikuladorearen goiko osagaiari sarrera-indarra 9 puntutan aplikatu ahal izateko, XY koordinatu-sistema bat (X = zeharkako ardatza eta Y = luzeetarako ardatza) duen txantiloa bat itsatsi zaio (5-1. irudia). Txantiloak, 3 errenkada eta 3 zutabe ditu: aurreko errenkada ebakortzetatik 6 mm-ra, erdiko errenkada ebakortzetatik 28 mm-ra, eta atzeko errenkada ebakortzetatik 50 mm-ra. Bestetik, lehenengo zutabea erdiko plano sagitaletik eskuinera dago kokatuta, 18 mm-ra, bigarrenkoa erdiko plano sagitalean, eta hirugarrenkoa erdiko plano sagitaletik ezkerretara, 18 mm-ra.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-1. irudia.** Saiakuntzaren sarrera-indarra 9 posizioetan aplikatzeko txantiloia.

Neurketak egiteko, T-Scan oklusio analizatzaile digitala hortzeria bakoitzean kokatzen da, neurrira fabrikatutako egitura finko baten laguntzarekin. Jarraian, zulagailu bertikal batekin (OPTI F30; Optimum) murtxikatze-indarrarekiko baliokidea den sarrera-indar bat aplikatzen da (169 N-eko magnitude konstantea duena). Indarra, 10

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---

aldiz aplikatzen da aplikazio puntu bakoitzean, errepikakortasun balditzetan (5-2. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-2. irudia.** 169 N-ko magnitudea duen sarrera-indarraren aplikazioa.

Sarrera-indarra aplikatzen den bakoitzean, analizatzaile digitalarekin oklusioa neurtzen da, fabrikatzailearen protokoloa jarraituz [124]. Neurketa guztiak analizatzaile digitalaren programa informatikoan erregistratzen dira, eta oklusio bakoitzetik, 3 datu adierazgarri aztertzen dira: KI-M, eta 5-1. irudiaren erreferentzia sistema berdina erabiliz, KI-Z-ren X eta Y koordinatuak. X koordinatua KI-Z-ak erdiko plano sagitalarekiko duen zeharkako kokapenari dagokio, eta Y koordinatua, berriz, aurreko ebakortzetatik luzeetarako norabidean atzeraka duen kokapenari. Guztira, 270 oklusio egin eta neurtu dira (3 hortzeria x 9 puntu x 10 errepikapen). Bi hipotesi nulua egiaztatzeko, eginiko neurketa guztiak estatistika-programa batean (IBM SPSS Statistics, v26; IBM Corp) aztertu dira.

Lehen hipotesi nulua frogatzeko, neurri errepikatuak dituen 2 faktoretako ANOVA ( $\alpha=0,05$ ) froga estatistikoa burutu da. KI-Z-aren X eta Y koordinatuak modu



independentean aztertu dira. Koordinatu bakoitza, 10 aldiz errepikatutako, 9 mailako faktore bat duen (sarrera-indarraren aplikazio puntuak), eta 3 mailako beste faktorea bat duen (hortzeriak) neurria dela kontsideratu da.


Era berean, eta bigarren hipotesi nulua frogatzeko ere, ANOVA frogak berdina burutu da. Kasu honetan, KI-M neurria 30 aldiz errepikatutako, 3 mailako faktore bat duen (aurreko 3 aplikazio puntuak, erdiko 3 aplikazio puntuak, eta atzeko 3 aplikazio puntuak) eta 3 mailako beste faktorea bat duen (hortzeriak) neurria kontsideratu da.

### 5.1.3 EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Sarrera-indarraren aplikazio puntuak, KI-Z-ren X eta Y koordinatuetan duen eragina 5-3. irudian erakusten da. Neurri errepikatuak dituen 2 faktoretako ANOVA frogak, 3 hortzerietan, X koordinatuetan ( $F_{G-G} [9,32; 125,85]=1.204,70; P<0,001; \eta^2=0,989$ ) eta Y koordinatuetan ( $F_{G-G} [7,75; 104,66]=1.149,69; P<0,001; \eta^2=0,988$ ), sarrera-indarraren aplikazio puntu taldeen arteko alde esanguratsuak erakutsi ditu (5-3. irudia), eta horrek lehenengo hipotesi nulua baztertzen du, sarrera-indarraren aplikazio puntuek eragina izan dutela adieraziz.

Gainera, 27 taldeentzako 10 errepikapenetan neurtutako X eta Y koordinatuen balioetan, % 0,37-ko batezbesteko aldakuntza-koefizientea lortu da.


## 5. ARTIKULUEN AZALPENA



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-3. irudia.** KI-Z-aren X eta Y koordenatuen kutxa diagramak, 3 hortzerientzat.

5-4. irudian, KI-Z-aren kokapenaren mediana errepresentatu da sinbolo batekin, MI-Z-ren aplikazio puntua aldagaiaren errepikapen multzo bakoitzeko, hau da, 9 sinbolo desberdin hortzeria bakoitzeko. Irudi horretan, IMP-an gizakien KI-Z-aren kokapena normalizat mugatzen duen elipse bat ere marraztu da (elipse horren barruan gizakien %68-ak du bere KI-Z-aren kokapena) [97, 110].




5-4. irudia. KI-Z-aren, 3 hortzerientzat, kokapenen grafikoak.

Sarrera-indarraren aplikazio puntuak, KI-M-rengan duen eraginari dagokionez (5-5. irudia), neurri errepikatuko 2 faktoretako ANOVA frogak (FG-G [3,37;146,71]=73,08;  $P < 0,001$ ;  $\eta^2 = 0,627$ ) agerian utzi du, KI-M-en portzentajeen arteko aldeak estatistikoki esanguratsuak direla. Hori dela eta, bigarren hipotesi nulua ere baztertua izan da, frogatuz, sarrera-indarraren magnitude berarekin (169 N) eraginda, aurrealdeko, erdialdeko eta atzealdeko multzoetako KI-M-en balioak nabarmen aldatzen direla (5-5. irudia).

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

Bestalde, 3 hortzerien eta 30 errepikapeneko multzoen KI-M-en ehunekoen batezbesteko aldakuntza-koefizientea % 3,70 dela kalkulatu da.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

5-5. irudia. KI-M ehunekoen, 3 posizio multzoen, balio grafikoak.

Emaitzak ikusita, honako bi hipotesi hauek ere baztertu dira: hortzeria bakoitzak IMP-an KI-Z-ren kokapena bakarra duela; eta murtxikatze-indarraren intentsitatea konstante mantentzen bada, hortzerietako KI-M-a ere konstante mantentzen dela.

Lortutako batezbesteko aldakuntza-koefiziente baxuak (KI-Z-ren kokapenetan %0,37, eta KI-M-ren ehunekotan %3,70), agerian utzi du hortzerien KI-en bi aldagai adierazgarriak neurtzeko diseinatutako eta erabilitako saiakuntza-metodoa oso errepikakorra dela. KI-Z-ren kokapena aztertzeko 27 talde erabili dira (MI-Z-aren 9 posizio eta 3 hortzeria), errepikakortasun bikaina lortuz. Aldiz, KI-M aztertzeko, 9 multzo erabili dira (MI-Z-aren aurrealdeko, erdialdeko eta atzealdeko posizioak, 3

hortzerietan), eta multzo horiek horren homogeneousak ez direnez, errepikakortasun baxuagoa lortu da.

T-Scan analizatzaile digitala, fabrikazio-serie bereko sentsoreekin erabiliz gero, kontaktu indar magnitudea neurtzeko gailu fidagarria zela ondorioztatu zen Cernaren ikerketan [23]. Kerstein-ek ere, T-Scan analizatzaile digitala ezker-eskuin indar oreka neurtzeko gailu fidagarria dela ondorioztatu zuen [124]. Beraz, azken ondorio hau, azterlan honetan lortu den KI-Z-aren X koordenatuaren errepikakortasun bikainarekin koherentea da. T-Scan analizatzaile digitala, indarraren balio absolutua neurtzeko tresna fidagarria dela ere ondorioztatu zuen Lee-k [20], hortzeria bat artikuladore erdi-doigarri batean muntatu, eta puntu bakar batean aplikatutako indar batekin konprimatuz. Beraz, ondorio hori ere bat dator ikerketa honen emaitzekin.

Artikulatutako hortzerien oklusioaren kalitateak, ez du eragin nabarmenik izan KI-Z-aren kokapenaren aldaketetan. Hala ere, kalitate txarreko hortzeriak (CASE BSL) kalitate hobeko hortzeriek baino aldaketa gutxiago izan ditu KI-Z-an (5-4. irudia). Horren arrazoa izan daiteke, kontaktu-puntu gutxiago izanda, kontaktu indarren birbanaketa mugatuagoa dela.

MI-Z-an egindako luzeetarako posizio-aldaketak zeharkakoak baino handiagoak izan diren arren, KI-Z-aren luzeetarako kokapenaren aldaketak txikiagoak izan dira (5-4. irudia). Horretaz gain, KI-Z-aren zeharkako kokapenaren aldaketak zuzenki erlazionatu dira MI-Z-aren zeharkako posizio-aldaketekin, baina KI-Z-aren luzeetarako kokapenaren aldaketak ez dira zuzenki MI-Z-aren luzeetarako aldaketekin bat etorri (5-4. irudia). Horren arrazoa izan daiteke, zeharkako egonkortasuna zeharkako bi muturretan kokatutako kondiloen bidez lortzen den bitartean, luzeetarako egonkortasuna luzeetarako mutur bakar batean kokatutako kondiloekin lortzen delako.

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---

MI-M balioa (169 N) kondiloetatik hurbilen dauden posizioetan aplikatu denean, KI-M-aren balioa txikiagoa izan da (5-5. irudia). Horren arrazoia izan daiteke, egoera horretan kondiloek murtxikatze indarraren zatirik handiena jasaten dutela.

Elektromiografia erabili zen beste ikerketa batean ondorioztatu zen, nahiz eta indar murtxikatzailerak simetrikoa izan, horrek ez duela KI-Z zentratu eta orekatu bat garantizatzen [119]. Ondorio hori ere bat dator azterketa honen 5-4. irudian erakutsitako emaitzekin.

Giharren murtxikatze indarrak eta hortzerietako kontaktu indarrak batera aztertzen dituzten ikerketen artean [115, 116, 118, 119], ez dago lehen indarraren eragina bigarrenarekiko aztertu duenik. Baina Wiechens-ek [111] eta Berry eta Singh-ek [112], KI-Z egunean zehar aldatu egiten dela ondorioztatu zuten, gainera giharren uzkurdua aldaketengatik izan zitekeela aipatu zuten, eta hori ikerketa honen emaitzekin bat dator.

## **5.2 2. ARTIKULUA: Oklusio kontaktu indarren ezker eta eskuin oreka neurtzeko, 2 oklusio analizatzaile digitalen errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna: in-vitro azterketa**

### **5.2.1 HELBURU ZEHATZAK ETA HIPOTESIAK**

Helburu zehatza: merkatuan dauden bi oklusio analizatzaile digitalen doitasuna (errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna) aztertzea eta konparatzea. Horretarako, erreferentzia bezala aukeratuko den neurria, interkuspidadio maximoko posizioan dagoen hortzeriaren kontaktu indarren ezker eskuin aldean arteko oreka da.


Aztertuko diren oklusio analizatzaileetako batek, OccluSense hain zuzen, ez du bere sentsorea hortzerian zentratuta kokatzeko piezarik. Hori horrela izanik, OccluSense gailura egokitutako zentratze pieza bat diseinatu eta fabrikatu da. Diseinatu den zentratze pieza erabiliz, eta oklusio analizatzaile horretan lortzen den doitasunaren hobekuntza aztertuz, sentsorearen zentratetaren garrantzia kuantifikatu da.

Hipotesiak: analisia aurrera eramateko, honako bi hipotesi nulu hauek ezarri dira:

1. Odontologiako merkatuan erreferenteak diren bi oklusio analizatzaile digitalen doitasunek, ez dute beraien artean alde nabarmenik.
2. Oklusio analizatzailearen sentsorea hortzerian hobeto kokatzeko, zentratze euskarri bat erabiltzen bada, oklusio analizatzaile digitalen doitasuna ez da hobetuko.

### 5.2.2 METODOLOGIA.

T-Scan eta OccluSense oklusio analizatzaile digitalen doitasuna (errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna) kalkulatzeko metodologia garatu da. OccluSense analizatzaileak sensore piezoelektrikoa ahoan zentratuta kokatzeko piezarik ez duenez, neurrira egindako bat diseinatu eta fabrikatu zaio (5-6. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-6. irudia.** A, T-Scan analizatzailea; B, OccluSense analizatzailea; C, OccluSense analizatzailea zentratzailearekin.

Hamar igeltsuzko hortzeria, interkuspidadio maximoko posizioan, 2.4.3 atalean azaldutako prozedura jarraituz, artikuladore erdi doigarri batean (Artex CN; Amann Girschbach AG) muntatu dira. 5-6. irudian erakusten diren T-Scan, OccluSense eta OccluSense zentratzailearekin erabiliz, hortzeria bakoitzean kontaktu indarren orekak (KIO) neurtu dira.

Analizatzaile digital bakoitzean, bere sensore piezoelektrikoaren posizioa artikulatutako hortzerien artean ondo finkatzeko, egitura finko pertsonalizatuak fabrikatu eta erabili dira (5-6. irudia).



Gailuei neurrira fabrikatutako egitura finkoen laguntzarekin, eta zulatzaile bertikal bat (OPTI F30; Optimum) erabilia, hortzeria guztietan murtxikatze indarrarekiko baliokidea den 145 N-ko sarrera-indarra aplikatzen da, artikuladorearen goiko osagaiaren puntu berdinean ( 5-7. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-7. irudia.** 145 N-ko magnitudea duen sarrera-indarraren aplikazioa.

Gailu bakoitzarentzat, sentsorea 4 aldiz kokatu da 10 hortzerietan, eta kokapen bakoitzeko, errepikakortasun baldintzetan 6 sarrera-indar aplikatu dira. Beraz, guztira 720 saiakuntza burutu dira (240 analizatzaile bakoitzeko), horietako bakoitzean kontaktu indarren orekak neurtu direlarik (5-1. taula).

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

	T-Scan gailua				OccluSense gailua				OccluSense gailua zentratzeko piezarekin			
	SK-1	SK-2	SK-3	SK-4	SK-1	SK-2	SK-3	SK-4	SK-1	SK-2	SK-3	SK-4
H-1	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E
H-2	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E
...	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E
H-10	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E	6 E

H, hortzeria (errepikortasun eta erreproduzigarritasun saiakuntzaren pieza); E, errepikapenak. SK, sentsore kokapena (errepikortasun eta erreproduzigarritasun saiakuntzaren neurtze baldintzak).

### 5-1. taula. Kontaktu indarren oreka neurtzeko protokolo esperimentalak.

Neurketa guztiei, “Real Statistics Resource Pack” osagarria instalatuta duen Microsoft Excel softwarea (2016 bertsioa) erabiliz, GRR froga egin zaie. Froga horrek, gailu bakoitzaren doitasuna kalkulatu du, kasu bakoitzeko errepikortasuna eta erreproduzigarritasuna adieraziz. Frogatutako neurria KIO izan da, eta erreproduzigarritasunaren neurtze baldintzetan aldatu den aldagai bakarra, sentsorearen hortzeriekiko kokapena izan da (egun aldaketa dagoenean kokapena aldatzen baita). Beraz, beste neurtze baldintza guztiak aldatu gabe mantendu dira: operadorea, ekipoa eta laborategia.

Zeharkako GRR probaren barruan (3.3 atala), sentsorearen kokapena eta hortzerien arteko interakzioa baloratzeko ANOVA ( $\alpha = 0,05$ ) froga burutzen da, eta horrela interakzio horri dagokion aldakuntza hori, neurketa metodoaren errepikortasunari edo erreproduzigarritasunari dagokion zehazten da.

### 5.2.3 EMAITZAK ETA EZTABAIDA

GRR frogaren barruan eginiko ANOVA frogek, hortzerien (pieza, GRR frogan) eta sentsorearen kokapenen (eragilea, GRR frogan) arteko iterazioak (operadorea × pieza, GRR probetan) KIO neurrien aldakuntzekiko estatistikoki eragin esanguratsua ( $P < 0,05$ ) dutela erakutsi dute. Horregatik, iterazio horri dagozkion KIO neurrien aldakuntzak, erreproduzigarritasunaren barruan kontsideratu behar dira. Frogatutako 3 neurketa moduen GRR emaitzak ondorengo tauletan azaltzen dira: T-Scan gailua (5-2. taula), OccluSense gailua (5-3. taula) eta OccluSense gailua zentratzailearekin (5-4. taula).

GRR FROGA T-SCAN ANALIZATZAILEARENTZAT						
ANOVA	Alpha				0,05	
	KB	AM	BK	F	P-balioa	Sig.
Pieza	6,728	9	0,748	1059,615	<0,001	
Eragilea	0,007	3	0,003	3,450	0,030	
Eragile*pieza	0,019	27	<0,001	6,194	<0,001	Bai
Errepikakortasuna	0,023	200	<0,001			
Totala	6,777	239	0,028			
Aldakuntza	AIAG klasifikazioa					
	Bariantza		DS		Tartea	Ebaluzioa
GRR Totala	0,024%	0,8%	1,6%	8,8%	<10%	Ona
- Errepikakortasuna	0,011%	0,4%	1,1%	6,0%	<10%	Ona
- Erreproduzigarritasuna	0,013%	0,4%	1,1%	6,4%	<10%	Ona
-- Eragilea	0,003%	0,1%	0,5%	3,0%		
-- Eragile*pieza	0,010%	0,3%	1,0%	5,6%		
Pieza-pieza	3,112%	99,2%	17,6%	99,6%		
Aldakuntza totala	3,136%	100,0%	17,7%	100,0%		
Kategoria zenbakia:	3					

AIAG, automotive industry action group. AM, askatasun mailak. F, Fisher estatistikoa. GRR, gage repeatability and reproducibility. BK, batezbesteko karratua. DS, desbideratze estandarra. KB, karratuen batuketak.

**5-2. taula.** T-Scan gailuaren GRR metodoaren emaitza taula.

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

GRR FROGA OCCLUSENSE ANALIZATZAILEARENTZAT						
ANOVA	Alpha				0,05	
	KB	AM	BK	F	P-balioa	Sig.
Pieza	4,562	9	0,507	35,626	<0,001	
Eragilea	0,028	3	0,009	0,660	0,584	
Eragile*pieza	0,384	27	0,014	27,701	<0,001	Bai
Errepikakortasuna	0,108	200	<0,001			
Totala	5,077	239	0,021			
Aldakuntza						
				AIAG klasifikazioa		
	Bariantza	DS			Tartea	Ebaluazioa
GRR Totala	0,280%	12,0%	5,3%	34,6%	>30%	Txarra
- Errepikakortasuna	0,051%	2,2%	2,3%	14,8%	10%-30%	Ertaina
- Erreproduzigarritasuna	0,229%	9,8%	4,8%	31,3%	>30%	Txarra
-- Eragilea	0,000%	0,0%	0,0%	0,0%		
-- Eragile*pieza	0,229%	9,8%	4,8%	31,3%		
Pieza-pieza	2,053%	88,0%	14,3%	93,8%		
Aldakuntza totala	2,332%	100,0%	15,3%	100,0%		
Kategoria zenbakia: 3						

AIAG, automotive industry action group. AM, askatasun mailak. F, Fisher estatistikoa. GRR, gage repeatability and reproducibility. BK, batezbesteko karratua. DS, desbideratze estandarra. KB, karratuen batuketa.

**5-3. taula.** OccluSense gailuaren GRR metodoaren emaitza taula.

GRR FROGA ZENTRATZAILEA DUEN OCCLUSENSE ANALIZATZAILEARENTZAT						
ANOVA	Alpha				0,05	
	KB	AM	BK	F	P-balioa	Sig.
Pieza	6,114	9	0,679	93,618	<0,001	
Eragilea	0,015	3	0,005	0,667	0,580	
Eragile*pieza	0,196	27	0,007	8,705	<0,001	Bai
Errepikakortasuna	0,167	200	<0,001			
Totala	6,492	239	0,027			
Aldakuntza						
				AIAG klasifikazioa		
	Bariantza	DS			Tartea	Ebaluazioa
GRR Totala	0,190%	6,4%	4,4%	25,2%	10%-30%	Ertaina
- Errepikakortasuna	0,083%	2,8%	2,9%	16,7%	10%-30%	Ertaina
- Erreproduzigarritasuna	0,107%	3,6%	3,3%	18,9%	10%-30%	Ertaina
-- Eragilea	0,000%	0,0%	0,0%	0,0%		
-- Eragile*pieza	0,107%	3,6%	3,3%	18,9%		
Pieza-pieza	2,800%	93,6%	16,7%	96,8%		
Aldakuntza totala	2,991%	100,0%	17,3%	100,0%		
Kategoria zenbakia: 3						

AIAG, automotive industry action group. AM, askatasun mailak. F, Fisher estatistikoa. GRR, gage repeatability and reproducibility. BK, batezbesteko karratua. DS, desbideratze estandarra. KB, karratuen batuketa.

**5-4. taula.** OccluSense zentratzeko pieza duela gailuaren GRR metodoaren emaitza taula.

GRR frogak, neurtzeko gailu eta metodo bakoitzaren doitasuna (errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna) modu indibidualean kalkulatu du. Baina 3 kasuetan, hortzeria berdina eta KIO neurri berdina erabili direnez, 3 froga indibidualen emaitzak beraien artean konparatu daitezke (5-5. taula).

<b>GRR froga indibidualen konparazioa</b>	<b>T-Scan gailua</b>	<b>OccluSense gailua</b>	<b>OccluSense zentratzailearekin</b>
240 KIO neurrien batezbestekoak	52,29%	54,40%	50,90%
240 KIO neurrien bariantzak	3,136%	2,332%	2,991%
Errepikakortasunaren eta erreproduzigarritasunaren bariantza (Bariantza totalarekiko % )	0,024% (0,8%)	0,280% (12,0%)	0,190% (6,4%)
Errepikakortasunaren bariantza (Bariantza totalarekiko % )	0,011% (0,4%)	0,051% (2,2%)	0,083% (2,8%)
Erreproduzigarritasunaren bariantza (Bariantza totalarekiko % )	0,013% (0,4%)	0,229% (9,8%)	0,107% (3,6%)
Errepikakortasunaren eta erreproduzigarritasunaren desbideratze estandarrek, 240 KIO neurrien desbideratze estandarrekiko	8,8%	34,6%	25,2%
AIAG erakundearen gailuen doitasun balorazioa	Ona	Txarra	Ertaina
Errepikakortasunaren eta erreproduzigarritasunaren aldakuntza koefizientea. (desbideratze estandarra / batezbesteko balio)	2,97%	9,72%	8,57%

AIAG, automotive industry action group. GRR, Gage repeatability and reproducibility.

**5-5. taula.** Hiru oklusio analizatzaile aukeren doitasunen konparazio taula.

GRR saiakuntzek erakutsi dute, T-Scan gailuaren neurrien aldakuntzen bariantza totalaren %0,8 doitasun faltagatik izan dela (%0,4 errepikakortasun faltagatik eta %0,4 erreproduzigarritasun faltagatik). OccluSense gailuaren kasuan, bariantza totalaren %12,0 izan da doitasun faltagatik (%2,2 errepikakortasun faltagatik eta %9,8

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---

erreproduzigarritasun faltagatik), eta gailu bera zentratzailearekin erabiltzean %6,4 (%2,8 errepikakortasun faltagatik eta %3,6 erreproduzigarritasun faltagatik).

AIAG erakunde amerikarrak egiten duen gailuen doitasunaren gaineko balorazioa erabilita, ondorioztatzen da T-Scan gailuren doitasuna (errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna) ona, OccluSense-rena txarra, eta OccluSense-rena zentratzailearekin erabilita ertaina dela. Beraz, Occlusense gailuaren kasuan, agerian geratu da sentsorea zentratuta kokatzeko gaitasunaren gabezia, eta gabezia horrek bere doitasuna (erreproduzigarritasuna nagusiki) neurri handi batean kaltetzen duela.

T-Scanaren KIO neurrien doitasun ona, Kerstein ikertzaileak ateratako ondorioekin bat dator, Kerstein-ek T-Scan analizatzaile digitala ezker-eskuin indar oreka neurtzeko gailu fidagarria dela ondorioztatu zuen eta [124]. Bestetik, T-Scan analizatzaile digitala indarraren balio absolutua neurtzeko tresna fidagarria dela ere ondorioztatu zen beste ikerketa batzuetan ere [20], batez ere fabrikazio-serie bereko sentsoreekin erabiltzen bada [23].

Doktorego tesi honen lehenengo artikuluan [146], T-Scan gailuarekin KI-Z eta KI-M neurriak errepikakortasun baldintzetan neurtu dira eta bi neurri horientzat ateratako aldakuntza koefizienteak (% 0,37 eta %3,70 hurrenez hurren) oraingoan neurtutako KIO neurriaren aldakuntza koefizientearekin (%2,97) alderatuta, antzekoak direla ikus daiteke.

5-5. taulan adierazitako errepikakortasunaren eta erreproduzigarritasunaren aldakuntza koefizienteak (T-Scan: %2,97, OccluSense: %9,72, OccluSense zentratzailearekin: %8,57), agerian uzten dute T-Scan-en neurrien doitasuna OccluSense-rena baina askoz hobea dela, nahiz eta OccluSense-a zentratzailearekin erabiliz gero bere doitasuna hobetzea lortzen den. Hala ere kontuan izan behar da OccluSense-a, T-Scan-a baino 10 aldiz merkeagoa dela, eta zentratzailearekin

erabiltzen bada, AIAG erakundearen balorazioaren arabera [127], bere doitasuna ertaina edo onargarria dela.

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---



### **5.3 3. ARTIKULUA: Oklusio analizatzaile digitalekin hartutako erregistroen doitasuna hobetzeko teknika**

#### **5.3.1 HELBURU ZEHATZAK ETA HIPOTESIAK**

Helburu zehatza: odontologiako merkatuan erreferenteak diren bi oklusio analizatzaile digitalen doitasuna (errepikakortasuna eta erreproduzigarritasuna) hobetzeko teknika kliniko bat diseinatzea.


Hipotesiak: aurrez eginiko analisiak doitasuna murrizten duen arrazoi nagusia sentsorearen eta hortzeriaren arteko kokapenaren erreproduzigarritasun falta izan da, horregatik kokapen hori hobeto bermatuko duen teknika bat asmatuz gero, oklusio analizatzaile digitalen doitasuna hobetuko dela espero da.

#### **5.3.2 TEKNIKAREN AZALPENA**

Teknika honek, analizatzaile digitalen sentsore piezoelektrikoa pazientearen ahoan modu erreproduzigarri batean kokatzeko prozedura bat eskaintzen du, analizatzaileen erregistroen doitasuna hobetzeko. Teknikak, paziente bakoitzaren hortzeriaren neurria pertsonalizatutako kubeta baten erabilera eskatzen du, zeina T-Scan eta OccluSense analizatzailetara finkatzeko egokitzaille batzuekin erabiltzen den (5-8. irudia). Kubeta eta egokitzailleak diseinatu, eta beraien STL formatuko artxihoak online eskuragarri utzi dira “The Journal Of Prosthetic Dentistry” aldizkariaren webgunean (ikus eranskineko 3. artikulua). Hala, teknika hau aurrera eramateko behar diren piezak, edozeinek deskargatu, eta 3D inprimagailu batean fabrikatu ditzake. Jarraitu beharreko urratsak T-Scan eta OccluSense analizatzaileentzat berdinak direnez, soilik T-Scan analizatzailea erabiliz azalduko dira.

## 5. ARTIKULUEN AZALPENA

---




*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-8. irudia.** T-Scan eta Occlusense analizatzaileentzat erabili beharreko piezak.

### **TEKNIKAREN URRATSAK:**

1. Zentratzeko kubetaren eta erabili beharreko oklusio analizatzaileari dagokion egokitzaileen STL artxiboak deskargatu eta 3D inpresora baten bidez fabrikatu, bio-bateragarritasun baldintzak [147] betetzen dituen material batean (5-9. irudia). Aurreragoko urrats batean, kubeta eta egokitzailea bi torloju normalizatu erabilita [148] lotu beharko dira.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-9. irudia.** 3D inprimagailuan fabrikatutako piezak: A, egokitzailea, B, kubetaxoa.


2. Kubeta probatu eta, beharrezkoa bada, pertsonalizatu (5-10A irudia). Horretarako, sartu kubetaren punta pazientearen hortz-uztaien artean, eta ziurtatu ez dagoela kontakturik kubetaren eta hortzen artean punta erabat txertatu baino lehen. Era berean, ziurtatu kubetak ez duela oklusioa oztopatzen punta goiko ebakortzen artean erabat txertatuta dagoenean (5-10A irudia). Beharrezkoa bada, kubeta pertsonalizatu egin daiteke kubetaren eta hortzen arteko kontaktua ezabatzeko, hortzekin talka egiten duten kubetaren eremuak errotuladore ezabaezin batekin markatuz (5-10B irudia) eta erretxina akrilikozko fresatzeko erreminta batekin zizelkatuz (tungsteno karburozko fresa, ISO 500104194145045 erreferentziarekin; Edenta AG) (5-10C irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-10. irudia.** Kubeta bi ebakortzen tartean ondo sartzeko prozesua.


3. Kubeta biskositate ertaina duen hortz inpresioak hartzeko erabiltzen den silikona batekin (3MImprint Bite; 3M) bete eta goiko hortzeriaren aurreko hortz gainazalen inpresio bat hartu (5-11. irudia). Kubeta ondo zentratuta dagoela ziurtatzeko, sudurraren punta kubetaren bi torloju-zuloen artean mantendu beharko da silikona erabat gogortu arte.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-11. irudia.** Pazientearen hortz inpresioak hartzen.


4. Kubeta ahotik atera, eta bisturi bat erabiliz alboetatik eta goitik atera den gehiegizko silikona moztu. Soberan dauden silikona zatiak kendu ondoren, kubetan dauden goiko hortzeriaren aurreko gainazalak garbi markatuta geratuko direnez (5-12. irudia), kubeta pazientearen goiko hortzerian modu erreproduzigarri batean kokatu ahal izango da. Gehiegizko silikona kentzeari esker, ebakortzen goiko zatia kubetan dagokion tokian ondo ahokatuta dagoela bistaz konprobatu ahal izango da ezpaina erretiratu.



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-12. irudia.** Goiko hortzeriaren aurrealdeko inpresioa.

5. Silikonarekin pertsonalizatutako kubeta egokitzaileari lotu 2 torloju normalizaturen bidez (ISO 7050-ST 2,2 × 6,5).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-13. irudia.** Pertsonalizatutako kubeta, T-Scan analizatzailera egokituta.

6. Oklusio analizatzailearekin erregistroa hartu fabrikatzailearen betiko protokolo jarraituz (5-14. irudia).



*Iturria: Norberak egindakoa.*

**5-14. irudia.** T-Scan analizatzailearekin erregistro hartzea.

### 5.3.3 EZTABAIDA

Teknika honen helburua, oklusio analizatzaile digitalekin hartutako erregistroen doitasuna handitzea da, eta horrela, tratamendu baten fase desberdinetan erregistratutako oklusio informazioa konparatzeko haien gaitasuna hobetzea. Teknika honek, analizatzaile digitalak zentratzeko kubeta baten erabilera eskatzen du, horregatik kubeta horren diseinu birtuala eta kubeta analizatzaileetara egokitzeko behar diren piezak gehigarriak, edozeinentzako eskuragarri utzi dira online “The Journal Of Prosthetic Dentistry” aldizkariaren webgunean. Bai T-Scan analizatzaileerako, eta baita OccluSenserako, zentratzeko kubeta eta teknika berdina erabil daiteke.

